

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

241n. zenbakia
bagilla 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



Ezkerretik eskumara

- GAZTAÑAGA'TAR JESUS (+)
- ARRINDA'TAR ANES
- ONAINDIA'TAR ALBERTO (Aita Olaso) (+)

BAKIOKO BARRIAK

Gazte Txartelaren inguruko VIII. kanpaina

Eusko Jaurlaritzak eta udal onek sinatutako itzarmenari esker, bakiotar gazteok aukera ezin ohea dozue aurreko zezeilaren 22tik Gazte Txartela barria eskuratu ahal izateko. Europako 26 errialdean eta estatuko autonomia erkidego guztietan omologatua izan dan txartel au aurrezki kutxetan eskuratu ahal izango dabe 14 urtetik 25 urtera bitarteko gazte guztiak. Txartelak eskaintzen dauazan abantailak naiko anditu dira azken gidan batutako 800 eskaintza barriei esker. Beraz, orren jakitun egon gura izanez gero, gida Kultur Etxean jaso ahal izango dozue.

Ostalaritzako 13 profesionari barri

Igazko urriaren bigarren amabostaldian ostalaritzako laguntzailea izateko asitako ikastaroa emendik gitxira amaituko da, egitarauan ezarritako 750 orduak bete aginean dagoz eta. Diziplina askoko prestakuntza mota au geienbat 5 arloren inguruan bideratu da: sukaldaritzako oinarritzako prestakuntza, sutean laguntzeko zereginak bete ahal izateko; zerbitzari modura jana eta edana zerbitzatzeko; tabernako barran jarduteko trebezia eskuratzea, tabernari bateri jagokozan zereginak betetzeko gaitasuna lortuz; otel baten nondik-norakoak zeintzuk diran jakitea, berbarako bezeroei egin bearreko arrera, geletako zerbitzua...; enpresak kudeatzeko omarrizko kontzeptuak, nor bere proiektuak bideratzeko gauza izan

daiten. Oinarritzako prestakuntza oneri esker, daborduko ikasleentzako bik lortu dabe bear egiteko kontratua eta, ganera, ikastaroa amaitukeran kontuan artu bearreko ainbat eskaintza izan dira. Era berean, Longarai ostetetxearen egokitzapen obrei bereala ekingo jakela aurreikusita dago; izan be, uda asikeran oteleko enpresa jarduera bateri oratzeko asmoa dago oilegitura au erabilita.

Jakien erabiltzailea izateko agiria bear-bearrezkoa ostalaritzan

Ostalaritzan jakien erabiltzaile agiria egiaztatzeko bearri-zanaren inguruko proposamen bateri erantzunez, Bakioko Udalak erabagi eban ori lortzeko asmoa dauken interesatuei deialdia zabaltzea. Orretarako, oso kontuan artu zan arlo turistikorako zein garrantzitsua dan Bakioko ostalaritza benetakako profesionariez ornitzea. Alan bada, iru eguneko ikastaro au bideratu guran Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz artuemonetan paratu ostein, maila 2 bereizi bear zirala jakinarazo euskuen: bata, jakiakaz zuzeneko lotura euki ez, baina ostalaritzako arloan, oilotegietan, merkataritzan, txosnetan... bear egiten dabenei zuzendutakoa; bestea, jakiak beren beregi erabilten dabenez zuzendutakoa (suteko laguntzaile eta buruei zein gozogintzako edo pintxoetako espezialistei... zuzendutakoa). Azkenik, esan bearra dago ikastaroari arrera ezin ohea emon eta makina bat pertsonak artu dauala parte.

Arrera ezin ohea sastarrak erreziklitzeko egitasmoari

Bakioko Udalak zabaldutako informazinoren bitartez, bakiotarren artean interes andia sortu da erabili eta botatzeko produktuak obeto bereizi eta, orren ostein, erreziklitzeko.

Aldundiari erreziklatu bearreko materiala banatzeko 200 poltsen ganean egindako eskaerari jagokonez, aitatu bearra dago eskari kopuruak aurreikuspen guztiak gainditu dauazala; izan be, leenengo 3 asteetan guztira 105 pakete banandu dira.

Nekazaritzaren inguruko ikastaroa

"Bakioko nekazaritza arloa bizibarritzeko pr estakuntza ikastaroaren saio teorikoak, zezeilaren 3an amaitu eta gero, saio praktikoei ekin deutse beste erri batzuetan izan diran esperientziak ezagutzeko. Ikastaroaren elburua azaltzea izan da zeintzuk diran tradiziozko baserriak euki daikezan alternatibak, bai eta, edozein jarduerari oratzeko zeintzuk diran emon bearreko urratsak be, kasu baterako, jarduera barria sortaearen inguruko aaterketa eta ikerketa, baKotxak edo erakunde baten aholkulariei esker egin bearreko bideragarritasun plangintza eta abar. Beraz, une onetan emen azaldutako jardueretarik bat edo nekazaritzako beste edozein aukeratu bearreko litzateke; izan be, korporazioa prest egongo litzateke aukera ori egiten dabenei laguntzinoa emoteko, bai erakundeai aurkeztu bearreko dokumentazioei jagokonez, bai ideia bear lez azurmamitukeran, bai orren inguruko bideragarritasun plangintza eginkeran.

"P" eremua, jarduera ekonomikoak bultzatzeko gunea Artalde auzoan

Une onetan indarrean diran arau subsidiarioek gune bi zeazten dabez industri jarduerak instalatu ahal izateko. Orretarik bat "P" izkiaren bitartez identifikatuta dago Artalde auzoan. Industrialdea, laguntza tailerrak edo beste jarduera ekonomiko batzuk kokatzeko esparruak prestatu guran, udalak "P" eremua martxan ipintea erabagi dau, orretarako, une onetan jendaurrean dagoan bearrezko plan partziala burutu eta oneritxia emon deuto urtarilaren 28ko osoko bilkuran. Eremu orrek 31.959 m.²ko azalera artuko dau, modu onetara banatua: 19.184 m.² industri eremurako, 4.627 utsarteetarako, 1.222 merkataritza zein gizarte ekipamendurako, 667 berdeguneetarako eta 5.012 errepide eta ginezkoen pasabideetarako. Industrialde onetan, bada, era guztietako jarduerak ipini ahal izango dira martxan.

ZIDURI

ERAKUSKETEAK

Zezeilaren 2tik 16ra, Kultur Etxeko Erakusketa-gelan, argazki erakusketea euki genduan. Egileek, Jose Ignacio Lobo eta Raul Guerra, Euskalerriko ainbat txoko erakutsi euskuetzan zuri-baltzez egindako argazkietan.

TXONTXONGILO SAIOA

Aratosteetan, zezeilaren 12an, urrengo egitaraudun jaia ospatu eben erriko eskolan:

15:00etan, umeek prestatutako antzezlanak.

16:00etan, txokolatadea eta erromeri txikia.

17:30etan, BIHAR taldeak "Baleak salba ditzagun" saioa eskaini eban oktogenoan.

INIAKI MARTIARTU

BOLTAIRKERIAK

Boltaire. Munduan ba-ditu bere lagunak. Edozein tokitan. Edozein arotan. Munduaren salbamena ots egin ta gizona naiz iraindu naiz zapaldu betiko modatxoa da lurrean... Zabaltasuna esan ta indarkeriz estutu ona emen gizonen jokera.

Munduan gizonen artean amets aundi bat somatzen dogu. Gauza aundiak egiteko gogo dago. Asmo bikaina da. Gizadia, larri-larri, deika dago. Jende pobriak ots, dei egiten dau bere bear izan ta estutasunean. Gure oinpeko lurrak ba-ditu ostera ondasunak, ugari eskeintzeko, gizonen semeei jaten emoteko. Gizon guztiak barriz,

dago beraz Kristo... Nork esan legike... ni Kristorena naz... Baita au be... Jaungoikoak errugabeak ta errudunak aztertzen ditu ta gogorkeria maite dauana, arek gorrotatu egiten dau.

Munduaren Egillearen jakituri ta aginduen oiñarriak onak dira. Gizonaren izateari, berez, ondo jatorkoz... Baiña gizonak beste era batera jokatu nai dau bere gogoz maltzurkerien erara. Ta zapalkeri ori argitzera ta askatzera Kristo etorri zan. "Iñork iñor, iñoiz ta iñola zapaltzeko eskubiderik ez dau", ots egin eban...

Beste gogorkeri maltzur bat be ba da munduan. Bol-

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

lan egiñez, lurraren frutuak bizi izateko aiñean, bereganatzeko eskubidea bizitzaz ta gizon izatez dauka.

Gizonen garrazi au guztiok entzuten dogu, guztioi dei egiten dauku. Karrazi gogorrez egin be. Baiña gizonok, emen, banatzen gara geure griñen eratarazaldun ta beartsuen artean... Aldra bakoitzeko ontan be danak ez dira bardiñak, batzuk estuagoak, besteak zabalagoak, ta arek zabarragoak... Naste zabal au zergaitik sortu bear da, gizon izatez, bardiñak diranen artean?

Nork nori esan dautso, zu anaia baiño geiago zara... Anaia menperatuko dozu... Zure otsein legez eukiko dituzu gizonak lurrean... Gizona diruz, guzurrez, maltzurkeriz ta indarrez zapaltzeko eskubidea nork legetu dau gizadian... Ori egiten dabenak, zelan esan legike, nik Jaungoikoa sinisten dot... Anaiak gosepean daukanak, ni Kristotarra naz, zelan ots egin legike...

Kristok, garbi, esan eban... Ni beartsuei Barri Ona zabaltzera nator, katiguak eta zapalduak askatzera... Nortzuk dira beartsuak, katiguak ta zapalduak... Nortzuk dira katigatzailleak eta zapaltzailleak... Nortzuekin

taire'k esan eban... Besteen aurka guzurra esaizu beti, zerbait geratuko da-ta. Bide oneri be, ondo, deritxoe askok. Au guzur ta biraoa da lurraren gaiñean.

Askatasunaren alde urten, gizonen onaren billa ekin ta guzur zapalketa besteei ezarri, beti zerbait kaltegarri dana geratuko dalakoan, au ez da gizonen egitea. Au zapaltzea, gogorkeria, ditadurea da.

Norberaren agindukeria garaille aterateko orren bear izanean dagon gizona, ao minkaitzekoa da. Baiña ori ez bakarrik. Buru ta biotza doillorkeriak baltzitu dautsoz. Ederkeriaren izenean on egiten dabela uste izan, buruari alan sinistu eragin nai ta nauskeria, maltzurki, erabilli barru guztian. Ta era ontan bizi al izateko, zer egin... Beste ingurukoak laidoz eta guzurrez izen baltzitu nai leukez. Ori da mundutarren jokerea, bien bitartean zintzoak, egiz diranak zapaldua.

PAULIN

BERTSOETAN

BERTSOAK

LENENGO JAUNARTZE'RAKO AZKEN AGURRA (XENPELARREN ERESIAN)

(1)
Gaurko egun au gureztat dogu
gutziz atsegingarria,
lenengo aldiz artu dogu'ta
Kriston odol ta aragia. J bis

(2)
Auxe dala'ta pozik daukazuz
Begoña;ko Ama maitea,
gure guraso anai-arreba
senide ta adizkideak. } bis


(²)
Gaurko gomutaz izango gara
beti-betiko fededun,
danen aurrean agerturikan
beti ta edonun euskaldun. bis

MAITASUN eta BATASUNAREN ALDE

Maitasuna Batasuna
daukaguz elburu,
gazte kristau bezela
bakea nai dugu. mutil taldeak

Er'irik erri gabiltz
bakearen alde.
gorrotoak el dakar
makiña bat kalte,
gorrotak ei dakar
eziñ beste kalte. neska taldeak

alkar ikusi eziña
alkar ikusi eziña,
gugandik aparte
gugandik aparte.
Maitasuna Batasuna
daukaguz elburu
GAZTE KRISTAU BEZELA
BAKEA NAI DUGU.



ELERTI ta ERESIA: Lertibe

ERRI MIÑEZ

Erri miñez erbestean ni negarrez...
amatxo neukan didarrez
amatxo neukan didarrez.
Luzeroan zagoz erriatik aparte.
seme maite etorri zaite
ama bizi dan arte.
Urte batzuk igarota erbestean...
udabari goiz batean
agertu nintzan etxean.
Ai seme laztana, elduko ziñana.
zigur ekian amatxok
etorriko ziñana.

(Galiziako eresi zar batean abestutzeko)

Fandango: Sentzundun neska-mutillak

Ator gurekin batera,
erdu mutil erriko plazara. bis
eusko oiturak zaintzera,
euskotar gazte zintzua bazara. j

An batuko gara erriko gazteak
gure antxiñako asaben ekandu garbiak bis
berbiztu nairikan Euskadi guztian,
eta alkar maitasuna geitu biotzian.

Arin-Arin:

Kalean gora, kalean bera
neska-mutillak anak gora; bis
Erririk erri gabiltza bakea billa,
eskeñirik maitasun opilla. bis
Eusko gazte garanok emen gabiltza
zabaltzen euskotar bizitza. bis
Gora Jaungoikoa, gora Lagi-Zarra,
gora Euskera gure izkuntza. bis

(Atxalandabaso tar Justo eta Agirre tar Txaro'ren ezkontzako
bazkari ostean abestua, orkestarekin batera)

Justori Txaroren alde:

Txarori Justoren alde

Dantza tokitan ikusirikan
Txarito naiko antxiña,
Justok esaten eban beretzat
ai neuretzako baziña.
Justok esaten eban beretzat
ai neuretzako baziña.
Zeurea dozu ta croan eizu
Txarito dan andra fiña,
Zeurea dozun emazte kutun
maitatzen eñ alegiña.
Zeurea dozun emazte kutun
maitatzen eñ alegiña.

Errespetuko Justo bizardun
orrez gañera euskaldun,
zeure senartzat autortu, Txaro
orain beti ta edonun
zeure senartzat autortu, Txaro
orain, beti ta edonun.
Senar-emazte maite modura
nai zindukedaz umedun,
zuen maitasunaren frutua
ia noiz ikusten dogun,
zuen maitasunaren frutua
ia noiz ikusten dogun.

Ezkontzako Mezatan azken agurra

Jaungoikua goratu nairik benetan,
emen batu gera anai antzera
beren altare oñetan:
orain siñismen garretan
doguz gure biotzak berotan,
Gure Jaungoikua zeru lurretan!

Zorionak opa deutzuguz ugari
gaur ezkondu zaren senar-emazte
ezkonbarri maiteoi,
iñoiz agertu ez dedin
zuen maitasunaren iturri,
eskatu deutzagu JAINKO AITARI

ANDONI AMUTXATEGI

JON JOARISTI ETA BERE "BUCLE MELANCOLICOA"

1. Garbi estan dezu zure lan ori ez dala Abertzaletasunaren Historia zeatz bat, abertzale batzuen historiak baizik: "Historias de Nacionalistas Vascos".

2. Unamuno dezu danen buru... Gero Sabin, zearka begiztatua... Eli Gallastegi... eta Bilbao "bocho"ko erdal-dun kumeak... eta Eskolapiotakoak... Arzallus ere, (nola ez?) ikutzen dezu bere jesuita jantzi ta guzti...

Baña ez dituzu Gipuzkoa'ko baserriak aitatzen ere... HB ortxen dago errotuta; euskaldun baserrietako gazte euskaldunen artean...

3. Euskaldunen jatorria ez dakizu nundik datorren; ez dezu, beintzat, antzerarik ematen... Arzallus'en abertzaletasunari buruz ari zeranean, onela diozu: "Su racialismo recoge elementos del discurso de antropología física de los años veinte al treinta de nuestro siglo (vagas y, por qué no decirlo, inoctras referencias al RH negativo, a los cráneos cromañoides, etc...)".

Badirudi gai oiek ez dizuela errespeto aundirik ematen... "Cromañoide" kaska-ezurretik atera zuen D. Jose Migel Barandiaran'ek hipotesis ura, alegia, euskaldunek ez dirala kanpotik etorri eta ez joateko emendik at, jatorria aurkitzeko, emen, Pirenee inguruan sortu bai zan aren azkazia, Cromagnon'eko leñotik...

Hipotesis ura tesis biurtzera joan da 1940 amarkadatik ona. Orduan, Argetina'n, eta ez Euskalerrria'n, sendagille batek aztertu zuen bertako 400 euskaldunen odola eta andik onera sortu zan RH'ren arazoa; gero, Sorbona'ko irakasle eta Toulouse'ko Unibersidadeko beste irakasle batek, orixen berbera agertu dute 1970'aren amarkadan... Azkenik, 1990ean orra nun azaltzen zaigun Luigi Cavalli Sforza, Italiar genovatarra, Laterri Batueta; ko Ikastola Nagusi batek, euskaldunen geneak aitatzen... Guztiak, Gure Maixu Don Jose Migel'en hipotesis ura, tesis biurtzen gaurko euskaldunen gorputzetik: odol mota, RH eta geneen bidetik aldarrikatzen digute euskalduna bertakoa dala eta ez Asia'tik edo Afrika'tik etorria, zuzenean beintzat, Cromagnon'eko zulotik, baizik...

Baña, zuk oiek ez dakizkizu, ala ori orrela ez ba'da, ez dezu beintzat aitzera ematen...

4. Unamuno, Sabiñ'ek eta ainbeste joandan gizaldiko jakintsuek, ez zeukaten euskaldunen jatorria billatzeko, izkuntza besterik... Eta izkuntzatic bakarrik, naiko garbitasun atera zuten; okerrak ere bai. Gaur-eguneko jakintsuek, ordea, aiek ez zuten ainbat lagungarri dute: eun leize marrazkiz beteak; beste ainbeste leize-egoitzak; Ieizeak illak eortzeko; 500 baño trikuarri geiago gure mendietan: cromlechs'ak ez gutxi... Oiek danak arkeolojiaren laguntzak dituzu, euskaldunen asiera billatzeko... Eta bide auek

danak Dn. Jose Migel "en hipotesis segurtatzen dute; Unamuno'k, Sabiñ'ek eta abarrek, euskera utsez, ezin egin izan zutena... Nun gelditzen da zure Arzallus'eri buruzko ura "(vagas y, por qué no decirlo, inoctras referencias al RH negativo, a los cráneos cromañoides, etc...)".

5. Unamuno'k Euskalerrria eta euskera utzita Salamanca'ra jo zuan... eta Castilla'ko aizeak eman zion oorea eta fama... Pio Baroja'k Madrid'etik zabaldu zuen bere izena, Caro Baroja bertakoa da eta zuk ere antxen billatu dezu aupada emango zizuen eta zure izena zabaldu eta luzatuko zuen indarra... Madrid'en bedeinkatua izaten da euskaldunen berri onak (Olazabal'en txamarra orlegia, Juanitok 14 zortzimillako tontorrak igo ba'ditu, Olano munduko txapel-duna gertatzen ba'da...) orrelakoak beti izaten dira "españolak"; ez dizute kasualidadez ere euskaldunak direnik esango; Baña emengo bateren batek okerrik egiten ba"du, albiste-emalledun guztiek esango dizute argi-eta garbi, ori "vascoa" dala.

Baña, joko orretara oituta dago euskalduna Goto eta Franco'en garaietik onera: orduko kronika zaarrak, eurak idatzitakoak, beti jartzen zuten euskalduna terrorista utsa ba'litz bezela; eurok egindako sarraskiak, berriz, oore aundikoak izaten ziran...

"Castelle" izena, lenengo aldiz idatzita, Valle de Mena'n, gaur eguneko Bizkai'ko muga berean agertzen da, "Las Glosas" liburuak dionez. Eta Castilla, lur zabala, euskaldunen odoletik sortu zan eta moroen eskutik Naparro-Aragoi'ko Basconiek, Gipuzkoa'ko Varduloek eta Bizkai'ko Caristi eta Nervionék (Errioxa eta Burgos era zabal-tzen zituzten beuron erroak), oiek askatu zuten eta eman zioten askatasunakin, akenik, izkera berbera ere bai... Latiñez ari dirala sortu zuten euskaldunek Gaztelera... Odol eta animaren erdia jaso zuen Castilla'k euskaldunen zere-tik...

1801'an konturatu zan Humboldt alemaniarra, eta idatzi ere bai, Castilla'k gorroto ziola Bizkaia'ri, bekaitzez, eta Bizkaiko burniari, Ebro'ko mugan, berealako zergak ipintzean, merkeagoa zala Londres'ko burnia Castilla'n, Bizkai'ko baño... Anaiak ez ba'gera, lengusu txikiak gutxienez bai... Nola sortu ote zitzaion euskaldunen ganako ikusi eziña?

6. Zure liburua perretxiko tortilla bat irudi zait: badira ontoak, zizak, tripakiak, era guztietako perretxikoak eta "entoloma lividum" naikoak, danen artean banatuta... Euskaldunen abertzaletasuna iltzeko? Ala erdal-duna pozteko?

ARRINDA'TAR ANES

AURTENGO UDABARRIAREN ASIERA

Tarteka dabiltz ibiltekoak
udabarriko oituraz
neguak orro bere gisara
eriotza burrukean,
odeiak dardar zeru goietan
urdira dana bildurtuaz
lurra negarrez sarri askotan
tximistaren suagaz

Udabarria jaiotze barria
denporaren aldiatan
baiña negua, beti, zirika
azken ostikokadetan,
erreka urak baltzezka datoz
orri orlegi tartetan
bizitza iztea, berez, samiña
neguarentzat lorretan.

Eguzki urrez zatoz argia
egunsentia danean,
ez izan bildur zuria da-ta
ortz garbia urdiñean,
zugatzak datoz orlegituten
mendiaren magalean
ta aize zorrotzak dardar darabiltz
arat onat biurtean.

Lora zuriak ugari datoz
bizi garrak bultz eginda
irriparreka dagoz zugatzak
sagastia loratuta,
zatoz zelaira bizitz barria
erne-miñak eraginda,
ixuri poza usain gozoaz
bakeaz inguratuta.

Mendi ta zelai alkar begira
zauritu ditu trumoiak
etsai bidetan ixildu barik
orroka dabiltz odeiak,
udabarria loraz jantzia
zapaldu zaitu aiziak
putz zorrotzetan aidiak.

BERBIZTUERA

Nor ete garan oroitzen nabil
geure izate txikian
buru ta biotz zerbait ba-gara
lurtar guztion artian
Jainko Altsuak bere errukiz
sortu ginduzan lurrian
elburu on bat ipini euskun
gure begie aurrian.

Maitasuna da gizon artian
ezaugarriarik onena
giza semeak egin legiken
asmakizun bikaiñena ,
maitasun aundiz agertu euskun
agindurik ederrena
alkarganako leialtasuna
izan zedilla lenena.

Goitar jakintzaz ta maitasunez
gura dau onbideratu
beti ondoan eta arduraz
pozez zuzendu nai gaitu
Jesus Jainkoak eta gizonak
gogoz nai dau gu alaitu
seme ekintza on baten bidez
Aita onagaz alkartu.

Sinismen bidez gabiltz lurrian
Aitarengana begira
gizon eginda agertu jakun
Jaungoiko bera lurrera
misteriorik maitetsuena
eldu zan gure artera
Jaungoikoa ta giza izatea
datoz lurra apaintzera.

Lurrean dabil Sorle berbera
gizadi illuna argitzen
arrigarrizko jokabidea
gizonak ez iruditzen
irakatsirik nagusienak
ebillan lurrez zabaltzen
ta gizadiak il egin eban
ta bera danei laguntzen.

Jesus bizia izan zan berez
izadiaren Jaubea
ta maitasunez eskeini eban
odol errukiz betea
on egiteak ekarri eban
mundu larria zaintzera
lurtar guztiak askatuagaz
Ait onaren esanera.

Guztien goitik arrigarriri
Aitak maite eban semea
mundu guztia arrituteko
elduko zana lurrera,
lurrak irrika artu eban
zeruen izar berbera
jazoerarik indartsuenak
irakasten etorrena.

Berbiztu da ta, ez dago emen
diño Gotzon zerutarrak,
ta arri zuloa uts utsik dago
ikaratuta bildurak
dardaraz dago izadi dana
pozez zeruko izarrak,
eriotzea goituta dauka
Jaungoikozko goi indarrak

PAULIN



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

EUSKALERRIA EDESTI-GOIA) (I)

EDESTI-AURREA

PALEOLITIKO: ARRI-ARO ZAAR

Edesti-aurreko garaian, edestia paperetan asi baño lenago, bada Paleolitico edo Arri-zaar Aroa deritzan aldi bat.

Gizonak bere eskuetan erabili zituen lenengo armak eta lanabesak, bideko arri koskorak eta arbola-adarrak izan ziran.

Gerora, armak eta lanabesak arrietatik atera zituen: sukarrietatik batez ere. Aietzek izan ziran gure Erriaren asierako lantegiak.

Deba'ko Ermitia kobaren atakan, kanpora begira ezker aldetik, arratsaldeko eguzkiak, Arno'pean eskutatu arte, betebetan jotzen duen toki berean, an zeukan gure langille edesti-aurrekoak bere lantegia. Antxen topa dituguz sukarr-txatalak pilloka. Orduko arri-txatarra.

Era guztietako arri-lanabesak egin zituen: aizkorak eta aiztoak, .ezteneak zuloak egiteko (taladroa), karrakaluak illea larruari kentzeko (fresadorak), serrak gauzak ebagitzeko, arri-txo makodunak ezurrezko eztenak sortzeko, eskuz eragindako torno baten antzera, ezurrezko jostorraz eta arpoiak, azagai-muturrak, azkonak eta lantzak. Azkenik, aria egiteko ardatzak ere bai.

Urteak pasa ala, materialak aprobetxatzen ikasi zuen, lanabesak txikiagoak egiñez: mikrolitos edo arri txikiak. Asieran arrobien inguruan lan egiten zuten, arri asko bear zutelako; arri txikiekin askatasun aundiagoa izan zuten, arrobietatik urrun lan egiteko. Emaizak (produktibitatea) nagusi atzo eta gaur. (2)

Arri-aroko Gizakien bizilekuak

Arri-aroko Gizakia, koba-zuloetan bizi zan batez ere, otzarentzako babes onak bait ziran. Baña, ez zan bizi pakean, piztiek burrukan egin gabe. Leizeetako artza zuen bere etsairik aundiena. Suaren eta arri-armen bidez zaintzen zuan bere egoitza gizaki arrek.

Izotz-arroak, Ifaraldeko izotzak Eurpa erdira erakarri zituen gure arteraño: emen bizi zan mamut illeduna (Rufignak leizean eun marazki daude mamut illedunenak) eta renoa (Altxerri, Orio inguruko leizean, renoaren irudi eder bat dago xixilikatuta...). Emen zebiltzan, gure artean, mamut illeduna, renoa eta baita rinozeronte illeduna ere.

Leize-atarian egur-adar eta piztien larruez esia jasotzen zuten animalien erasoai euzteko. Sua ere bazuten lagungarri. Sutegia kobaren erdian gordetzen zuten, atakatik gertu, eta bere inguruan bizi ziran; bertan lan, bertan jan eta bertan lo. Ildakoak ere koba barruetan etzaten zituzten. Illak eta biziak, guztiak elkarrekin.

Ez ziran oso garbiak eta leizeetako lurak gauzaz beterik etorri dira gureraño: jan ondokiñetan ezurak ugari: beienak, auntzenak, oreñenak, basurdeenak eta abar; lapa, mejilloi, ostra azalak, itsaso eta mendiko kurkute edo karakolak... Lanabesak eta arri txatalak ugari, txatarraren antzera... Baita ikatz erreusak ere.

Bazeuzkaten eliza ziran leize-zuloak eta bertan egiten zituzten aztikeriak, bai eize-arrak arrapatzeko, baita emeak ugaritzeko be... Animaliak gurtzen zituzten barru oietan; euren jatorrikoa bakoitzak, uste bait zuten, animalia zala gizakien sorrera. (Totem).

Eliza auek marrazki, xixilikatu eta margoz beteta dauda; baña, ez daude atakan edo kanpoan, ikusteko egiñak; bestela baizik, toki illun, biurri, zail eta gaitzetan; argitik oso urrun... Eizea asi orduko, aztia sartuko zan barru oietan eize-aztike-riak egiteko Irudiaren biotz-ondoan lantza-muturra sartu ezker, bisontea arrapatuta zegoen, irudiaren eta gauzaren artean dagoen indar bateri ezkerak. Adurra du izen eta Aztiak du adur ori, kiñu eta itzez, sortzeko aalmena. Aztia aztikeriak egitera mamuz jantzita joango barru arretara, krisaillua eskue-tan duela.

Irudietan daude mendietako abereak, aidean dabilzan zenbait txori eta ibai-itsasoko arrain. Margotzeko odola eta ikatza erabili oi zuten; baita gorri-motako burni-meatzak ere...

Arri-aroko Gizaki arrapatzailea

Aro onetako ez du berak ezer sortzen: daudenak jaso eta arpatu: mendiak abereak, ibaietan arraiñak eta lurak berez ematen ditunak jaso.

Gizaki eiztaria: koba-zuloetan margotzen dituen animaliak arpatzen ditu mendi eta zelaietan: bisontek, zezenak, basautzak, oreñak, basurdeak eta abar. Baita egazti eta arraiñak ere.

Piztiak eta abereak akabatzeko lantzaeta azagiak erabiltzen ditu batik bat. Baita tranpa-zuloak ere mendarte barrene-tan, adar eta ostroez egoki estalita. Mendigaraitik beera botatzen zituzten istilluka eta zapartaka, zuloan erori arazteko, eta an bertan erail. Arpoi bereziak ere erabiltzen zituzten, sokatik txitxilika egur zati bat zutenak, animaliarri korrika egitea eragozteko.

Gizaki arrantzalea: erreketan barboak eta amorraiñak, ibaietan izokiak, platuxak, errondo-latzak (rodaballoak), urr-buruak eta abar. Arrantzarako arpoiak, sareak eta butroiak erabiltzen zituzten.

Arrapatzaile: lurak berez ematen zituenak jasotzen zituzten: urra, gaztiña, basaran, garangorri, ezkur, mazuzta... sus-trai eta belarrak. Eta basoko ezti. Bere lanakin ez du ezer sortzen; egiña dagoena artu, beste barik. Gaurko egunez ere itsasoan geuk ez degu ezer sortzen; dagoena artu eta kito. Arrapatzaile utsal gera. Berdin egiten degu petroleo, ikatz eta meatzekin.

Animalien larruekin jaxten zan, liñu eta ardillekin aria egiten ikasi zuen arte.

Ildakoak bizien egoitzetan dute euren sepultura.

Leizeetako marrazki, xixilikatu eta margoek Madalen garaian lortzen dute curen bikaitasun ikusgarria. Madalen Dordona'ko leizea da. Ifaralderuntz Solutre eta egoalderuntz Aurignac kobazuloak daude. Biak ematen diote aldi bakoitzari beuren izena: Solutre-garaia eta Aurignac-garaia. Eta biak dira Madalen baño zaarago eta bien artean dago Madalen-

EDESTIA

garaiagi izena ematen dion leizea. Eun baño koba geiago dau-
de edertasunez beteak...

Orixe da Cro-Magnon'go gizonak utzi digun gauzarik ede-
rena eta ikusgarriena. Emen agertzen da benetako Horno
Sapiens Sapiens. Leizeak Dordoña'n. Bordel inguruan, asi.
Pirenee"tara jetsi eta Gipuzkoa'n irten eta Bizkaiatik Kanta-
bria'ra Asturias eraíño.

Danen artean osatzen dute Franko-kantabrika deritzan Kul-
tura eta Kultura orren ardatzean kokatzen da gaur eguneko
Euskalerrria.

Cro-Magnon eta Euskaldunak

Arri-aro Erdikoa. Aro onetako gizona, Kristo aurretik,
90.000 urtetik 35.000'ra bizi izan zan: Neanderthal'eko gizon
onek gure errietako koba batzuetan izan zuen bere egoitza. Bi
milla inguru bizi izan ziran Europa guztian sakabanatuta. Ez
gizonik zaarrena; ez eta gutxiago ere: baña, gure artean ibilli
zalako aitatzan degu. Izkutatu zan zearo gure artetik, ez daki-
gu nola eta orduan agertu zan Cro-Magnon'eko Gizona.

Cro-Magnon'eko Gizona, gure aurrekoa, ez du ezer ikuste-
korik Neanderthal'ekoakin. Dorkoña'ko Cro-Magnon deritzan
leize batean aurkitu zituzten lenengo aldiz arkazi onen gorpuz-
kiak eta ortik datorkio "Cro-Magnon" izena. 30.000 urte dira
koba orretan beuren egoitza eta babes-leku aurkitu zuenetik.
Würm garaiko izoztean. Izozte arrek Kristo aurreko 8.500
urteraíño iraun zuan.

Urtiaga Itziar'ko kobea da eta billatu zitun D. Joxemiel
Barandiaran'goak bost kaska-egur Cro-Magnon'etik onuntz
aldaketak izandakoak; áizkenak oraingo euskaldunen tipokoak
ziran, trikuarrietan dauden artzairen antzekoak. Ortik eta onera
gure maixuak susmo bat atera zuan, hipotesis bat, eta auxe da:
Euskalduna Cro-Magnon'eko aldaketa bat dala Pireneemen-
dieten gertatua. Ez dago zertara joan bearrik emendik kanpo-
ra euskaldunen jatorria billatzeko.

Euskal-odola. Barandiaran'en susmoa, odolak egiztatu
zuen, urte batzuek aurrerago. Iru odol mota daude: O, A eta b
(eta A+B). O da kutsa gabeko odola. Eunetik 50 euskaldunek
dute odol au. A da Europa'ko iparaldekoa: euskaldunen
artein % 45 dira mota orrekoak. Bekialde eta Afrikakoa da %
100; euskaldunak % 5 tek dute kutsadura ori. Beraz ez dira ez
Asia'tik ez Afrika'tik etorri. Bertakoak dira. Ala agertu dute
Jean Bernard... Sorbona;ko irakasleak eta Jacques Ruffié Tou-
louse'ko Unibertsitatean maixu dagoenak.

Rh, da kutsadura berri bat: Macacus Rhesus tximiñoak due-
na, Gutxien euskaldunak dute; batez ere Zubero'koak. Ekial-
dean guztiek dute Rh kutsadura. Beraz euskaldunek ez ziran
andik etorri; ala ba'litz', kutsaduraz beteta etorriko ziran.

Euskaldunen geneetatik ondoren berdiña ateratzen du Lui-
gi Cavalli Sforza, Estatu Batuetako Unibersitateko irakasleak.
Berak dionez Euskaldunak Cro-Magnon'etik sortuak dira.

Barandiaran'ek 1940 inguruan, agertutako susmoa, Sorbnoa
eta Toulouse'ko Irakasleak 1970'kadan eta Cavalli jaunak
1990. egiztatu dute odol eta geneen bitartez: alegia, Euskaldun-
ak ez dirala Ekialdetik etorri. Cro-Magnon'etik, baizik.

NEOLITICO: ARRI-ARO BERRI

Azili-garai

Kristoa-aurretik 8.500 urtetik 5.500'era. Izotz aldia amaitu

da; denbora gozoagoa; euskal askazia sendotzen doa; kostae-
ta barrualdeko leizeetan bizi da; lanabesak oso txikiak dira;
oreíñak, basauntzak, basurdeak, bisonteak, zaldiak arrapatzen
ditu... kobeetako marrazkietan daudenak. Marraki eta lan eder
aiek sinpletu egin dira eta marratxo biurtu.

Mesoliti-garai

Kristo'ren aurretik 5.500 urte... Aurrera doaz animali eta
lurraren ezikitan: lanabesak oso txikiak, txiki-txikiak egin arte
(microlitos)...

Neoliti edo Arri-berriaren garaia

Gizakien edestian izugarriko iraultza dator: Gizon eiztari
eta arripatzaillea, artzai eta nekazari biurtu da. Animaliak ezi
eta ikulluan gorde aragia bear duentzat eta lurra beartu bere
doaiak ematen... Arripatzaille utsa zana emankor biurtu da.
Buztiña bera ere eziko du ontzi mota guztiak egiteko; aizko-
rak landu samurtzeko eta leuntzeko... Orixe da "arri-berria",
garai onetako ikurra.

Lau gauza ditu garai onek oso bereziak: aberezaintza, neka-
zaritza, zeramika eta arri landua.

"Arri-berria" Euskalerrria'n

Ekialdean bi milla urte aurrerago asita zegoen; baña gure-
ra 3.500 urte, Kristo aurretik, eldu zan. Gaurtik neurtu ezke-
roz, 5.500 urte. Lenengo ta bat ezitako animalia txakurra da.
Lagun ona eizerako eta aberezaintzarako. Ondoren beia, aun-
tza eta zerria. Zaldia brontze garaian eta astoa beranduago,
Errioxa aldetik sartuko da gure artean. Ardia kanpotik etorri
da.

Aragia jateko ez du eizera joan bearrik: ikulluan ditu,
beiak, auntzak eta zerriak. Gerorago ardiak ere bai. Eizean ere
egiten du: basoetan oreíñak eta malkorretan basauntzak. Uda-
berrietik udazkenara goiko mendietan zainduko ditu ardi eta
abereak (Aralar, Aizgorri-Urbia, Urbasa, Andia, Entzia, Gor-
beia eta abar; gaurko egunez oraindik ere bertan ari dira abe-
rezaintzan; bat ere tokirik aldatzeke eta oiturak, ez asko).
5.000 urtean etenik gabe.

Nekazaritza nekezago dabil; etxe inguruko baratzak izan
ezik, nekazaritza eskas Araba eta Napparroa'n izan ezik, Nka-
zaritzak aurrerapen aundiak egin ditu Ebro'ko baillaran.

Ildakoak trikuarrietan eortzen ditu, mendi goietan, abere-
zaintzan udaran dabillen ingumarietan. Artarako baditu baita
ere leize bereziak. 1990'ean 450 trikuarri baño geiago esagu-
tzen ziran gure artean: aundiak eta txikiak, era guztietakoak.
Aundienak, Araban. Garia eta errota-arriak, agertu dira. (Eus-
kal-Aztarnak).

METAL-AROAK ETA EROPATARRAK

Urrea eta zidarra

Auek dira lenen agertzen diran metalak: urrea eta zidarra.
Berez daude Izadian, utsik. Ondoren billatzen ditugunak urrai-
da (cobre) eta zirraida (estaño) dira: auek ere utsik.

Urraída edo tupikia

Gure artean aurkitu diran lenengo lanabesak bi aizkora
dira, puñal bat, lantza-muturra, bi azkon eta punzoi bat. Guz-
tiak urraídakoak. Arrizkoak ere erabiltzen dituzte.

Ezkurra'n (Napparroa) urraídako aizkorak egiteko arrizko

molde bat azaldu da. Gerora urraidari zirraida naastu zioten, estañoa, alegia eta ortik sortu zan Brontzea.

Brontzea

Urraida baño gogorragoa da. Brontzeko aizkorak billatu dira orpodunak eta bi belarritxoekin.

Brontzearen jaun da jabeak Europa erdi eta ipaaraldeko erriak izan ziran. Egun batez ego-alderuntz egin zuten Europa osoa bere mende arturik, kultura eta izkera zaarrak zanpatuz eta indarrez berriak ezarriz.

Pirenee-mendietatik (Orreaga"tik) Naparropa sartu eta andik Araba'ra, Euskalerra'ko ego-alde guztian kokatuz. Errez zaintzeko diran mendi gaillurretan egiten zituzten beuren gazteluak.

Mendiak aukeratzen zituzten itzarmenen bidez ala arman bidez. Brontzezkoak zituzten armak, beste guztiak, berriz, urraida edo kobrezkoak, biguñagoa brontzea baño. Artzaiak eta nekazariak ziran (garia basuten), brontzea eta urrea lantzen zute. Ildakoak tumulu eta cronlecheta eortzen zituzten, errauts biurtu ondoren. Zeramika torno geldirokoetan egiña eta lurgaiñean egosita. Orain 3.200 urte beuren bizitzaren aztarna ugariak laga zituzten Laguardi "ko La Hoya aztarnegian.

Burnia

Bosteun urte beranduago, La Tene, Burniaren Bigarren Garaian, talde berriak datoxz lengo lekutik. Auek burnizko armak dituzten eskuetan, brontzezkoak baño egokiagoak burrukarako eta euren arreakoen gazteluetan kokatzen dira nola indarrez ala pakez. La Hoyan indarrez sartu ziran eta aurrekoak txikituz.

Ez ziran Naparroa eta Araban gelditu; Gipuzkoa eta Bizkaian ere gazteluak agertzen ari dira etenik gabe (Marueleza, Luno eta Berreaga Bizkaian; Intxur, Buruntza, Muru eta Murugain Gipuzkoan, Eta asi besterik ez dira...)

Mendi-gañetan bizi ziran, egoitza arri-esi izugarrien bidez sendoturik. Urrea, brontzea eta burnia lantzen bazuten egokitasun berezia. Bazuten garia ere. Gure ipuietako Jentillen antza ematen dute. Zeramika torno ariñagoekin egiten zuten eta ohea. Erromatarak gurera eldu ziranean, galdu ziran bista-tik betirako. Nora joan ote ziran? Bertako jendearekin naastu ote ziran? Orixe iñork ez daki. Euskaldun odolaren A zerkia (% 45) eurak utzitakoa ote? ("Euskal Aztarnak").

EDESTIA

ERROMATARRAK GURE ARTEAN

Erroma

Erri au sortzen danerako, Eurpatarrek 500 urte zeramaten gure gallurretako beuren gazteluetan. Sortu eta bereala asi zan zabaltzen Italia guztian zear eta andik Europa, Asia eta Afrikara Mediterrane itsasoaren inguru guztietan.

Utsa Miliaria

"Bide guztietatik joaten da Erromara" zion gure esaera zaar batek. Eta egia da, bide guztiak andik etorri diralako. Bideak neurtzen dituzten milla guztien asiera, Milla Utsa (Cero) Erroman dago Foros Imperiales deritzaten aztarna artean. Andik irteten zuten bide zabalak, zazpi metrokoak, aldamenetan bi

metroko ertzak zituztenak, bi gurdi alkar jo gabe gurutzateko moduan.

Aietako bide bat, itxas-ertzetik, gora Pirenee mendietaraino etorri zan. Beso batek Burdigal'era igo eta besteak Tarragona'ra jetxi. Bien artean artuko dute erdian Euskalerra. Bordel'etik irtengo du 34 deritzan Bidea, Orreaga'ra (Roncesvalles) eta andik Iruñera, eskubira, Sakana eta Burunda'tik aurrera Araba'ko lautadara, Pankorbo'tik Brivieska'ra joaz. Tarragona'koak, berriz, Kaskante'ra eta andik Logroño tik zear Brivieska'ra. Emen alkartuko dira bi bide zabal oriek, Astorga'ra alkar batuta segitzeko.

Bi bide zabal auen besoak Naparra'n sakabanatzen dira. Kaskate"tik gora joando da bat Espinal'eraño eta an alkartuko da Bordel'etik datorren 34 Bidearekin, Orreaga'tik gertu. Eta an sortzen dan besoak, Bidasoa'tik aurrera, Oiartzun'eraño eldu da. Erromatarren bidez beteko da gure erria.

Artzaien bideak

Erromatarren bideetatik at, badaude Euskalerra'n beste bide asko, apalagoak: artzaien bideak. Udar mendietan gora eta neguan ibarretara jotzen dutenak. XX'garren eunkadan ikusten ditugu bide oietatik makiña bat artalde udaran gora, neguan beera... Oietako bat da "La cañada de los rondaleses" deritzan bidea: Erronkal'etik Napar-egoaldera dijoana.

Erromatarren garaian, artzai euskaldunek beuren artaldeekin, etenik gabe mogitzen dira gora eta beera, Pirremendietatik Bordele'era iparraldean, eta Pireneetatik Teruel'eraño, egoruntz. Euskaldunen kulturarako garrantzi aundia izan dute artzai-bide auek, Neolitiko Arri-beri Arotik onera, batetik bestera kultura gaiak zabaltzeko.

Erromatarrek eta Itsaso-bideak

Europatarrek, euren egoitzak mendi gaiñetan egiten zituzten; erromatarrek, berriz, ballaretan zear; aurretik bideak ebagiz eta bide oietatik menperatzen zituzten etsaiak. Ortik sortu ziran ainbeste Erroma;ko zubi.

Baña, Erroma ez dabil legorretik bakarrik; itxaso ere erabiltzen du bere bidaiak egiteko. Mesditerane-itsaso eta Iberia-Peninsula zearkatuz, Ipar-itasoetara ere urbiltzen zan. Kantauri itsasoko erromatarren bidea, iru ondoratutako ontziek markatzen dute: bata Galizia (Vigo-Cortegada); bigarrena, Ondarribia'n (Asturiaga) eta irugarrena Bordel'en (Garon ibaien).'

Merkataritzan zebiltzen batetik bestera: Ondarribia"n ondoratutako ontzia burni-meatzez beteta zegoen; baño, badaude ere zerammikako ontzi luzanga bereziak, oligoa eta ardoa eramateko egokiak... Egun argiz itsasoan eta illuntzerako babes baten billa. Gaez geldi eta neguan ere bai, egualdi txarrak dirala-ta.

Euskaldunen begi-aurretik igarotzen ziran erromatarren gerrabarkuak, trirremeak eta, Kantabria"ren aurkako Agripa"k eramantiko burrukan. Trirremeak iru sail arraunlari zituzten alde bakoitzetik.

Bordel'eko portuan zeukaten erromatarrek bere merkataritza guztiaren ardatza eta Lapurdum'ekoan (Baiona) militarrena: gerra-ontzi eta Gudarostearena.

Getary'n aurkitu ditze arrai-salazoi langegiak.

Bidasoa (Via Oiason=Via Oiartzun) ibaian garrantzi aundi-ko kaia zan; Iger'muturrean duen Asturiaga babesa, batez ere. Antxen dago ontzia ondoratuta burni meatza lagun duela.

EDESTIA

Ibaian aurrerago dago El Juncal'ko nasa, ontzitik irten eta ontzira sartzeko. Gaur egun ez dago Irun'go Juncal eliza eta malda gañean, Santa Elena ennitatxoa, erromatarren illerria: an daude oraindik errautzez betetako orduko ontziak. Irun zan aundikien egoitza eta bidea zeukan Oiartzuna (Oiasson zaarra). An zegoen Arditurri'ko zidar arrobi izugarria. 50 urte Kristo aurretik asi ziran erromatarrek ango meatzak ateratzan eta artan jardun zuten Kristo jaio eta 150 garren urterarte. 200 urtez galena zidarduna ateratzen. 400 gizasemeantzako lana.

Babes kaiak ziran Pasaia, Donostia eta Getari, Deva ibaiean, Astigarribi inguruan (Tritium Tuboricum) edateko ura zuten nai aña. Artibai (Ondarroa), Lea (Lekeitio), Oka (Gernika eta Forua) eta Nervion (Flaviobriga eta ango burni-meatzak) izan ziran babes lekuak merkataritza eta gerrako ontzi erromatarrentzat.

Erromatar Gudarostea eta Kohorte Laguntzailleak

Gudarostea Lejioiez konpontzen zan. (Augusto Enperadoreak 28 murriztu zituen; aurretik geiago ziran). Lejio bakoitza 5.500 oiñezko eta 120 zaldizko osatzen zuten.

Lejio oietzaz gañera bazituzten, menperatutako errietatik ateratzen zituzten Kohorte Laguntzailleak ere. Bakoitza bere erriko jantziekin. Miliaria zanean, Kohorteak milla gudari zitun: 760 oiñezko eta 240 zaldizko. Milla gudari oiek 10 Euneko (Centuria) osatzen zuten. Euneko batek 76 gudari oiñezko eta 24 zaldizko. Ala bat 24 zaldizko osatzen zuten. Talde txiki auk arin ibiltzen ziran bide berri aietatik nagusitasuna sortuz.

Kohorte Laguntzaille Euskaldunak

Sei ezagutzen dituguz edestian zear Millakoak eta Zaldidunak (miliaria equitata): 2 baskoiak, 2 bardulak, bat caristia eta bestea nerbiona.

Baskoiak bi: Naparro eta Ebro ballarkoak. Lenengo aldiz Rhin ibaiean agertzen dira eta ondoren Bretanian. Amabi alditan ematen dizkie Diploma de Honor: 105"teko urtetik 160'ra bitartean. Millakoak ziran eta Zaldidunak.

Bi Bardula (Vardulia: Gipuzkoa). Famosoena au zan: "Cohors 1 Fida Vardulorum civium Romanorum equitata miliaria". Aren oorezko aitamenak urte auetan banatzen dira: 90, 105, 122, 124, 135, 139, eta 190.

Caristia bat (Bizkaia) eta Nerviona bestea (Bilbao). Milla-koak eta zaldunak. Bazirala, beste berririk ez dakigu.

Sei auen berri ziurrak dakizkigu; baña, izan zitekean beste geiago ere. Jakin ez, ordea. 75 zidarrezko Denarioak irabazten zituzten urteero. Eta jubilatzean. (20 edo 30) urte ondoren, lurragari jasotzen zituzten, petxarik ordaindu bearrik ere ez eta gañera "cives romani" izendatzen zituzten. Eta titulo orrek onura asko ekartzen zizkion Erroma'ko Uitarrei. Etorkezun au ez zan txarra abereak (aberatsak) ez zituztenentzako eta maiozragoa ez ziranentzako. Okerragoa izango zan meatzetara joatea.

Bada Erroma'n "Ascoli'ko Brontzea" deritzan dokumentu bat eta bertan 24 zaldizko Turma bat aitatzan da; Pompeyo Estrabon (beste Pompeioren aita) "Cives Romani" izendatzen ditu zaldizko gudari oiek. Ogeitalau oietatik bederatzia Ejea de los Caballeros'koak ziran (baskoiak). Batzuek beuren izenak aldatzen dituzte erromatarrenak arturik. Elandus da bat eta bere izena erromatarra: baña, bada beste bat Ennecus Enneconis (Eñeko Eñekorena) eta ori euskaldun utsa da. Bide batez agertzen digu zein zaarra dan gure artean Eñeko izena.

Ez darabile bururako kaskorik. Illea lotuta, jantzi motza belauetaraiñokoa, gerrikoz lotuta. Abarkak eta amantarrak. Bi aoko ezpata motra eta larruzko ezkutu txiki borobilla.

Bidasoa (Via Oiasson)

Ibai onetan aurkitzen degu, Bordeleko Bide zabal 34'tik irtetzen duen beso bat. Orrega'tik laister. Valde Erro'n asiera duena, Oiartzunerako bidea; Bidasoa. Ibaitek itxaso zabalera irtetzeko unean, badu Bideasoa ibaiak, portutxo bat, itxasontzietako babes-leku. Izena du.

Asturiaga

Higuer aitzaren muturrean dago. Berezko babes da eta an dago ondoratuta lenago esandako ontzia, meatz bezala. Urpeko igarilariek aurkitu zuten 1961'ean, amazapi metrora. Anfora deritzan zeramikako ontzi luzanga-pillo bat tropa dute itxasoan. Legorrean, berriz, brontzezko jaingo txikien irudiak: Minerva Marte, Elios-eguzki eta Isis-illargi'renak. Ontziaren bularrean josten zituzten jaingoen babes eskatzeko. Kristo aurreko eunkadakoak dira aztarna guztiak.

El Juncal

Nasa bat zegoen, zur-zubi bat, ibaiean bertan, legorrera igotzeko Irun'en. Antxen daukagu El Juncal'eko ama Birjiñaren eliza. Onek azpiko aldetik arresi bat du saeterekin. Zuloa erreus askorekin beteta dago. Ortzen ari dira aztarnak egiten eta erromatarren garaiko zenbait gauza agertu dira bertan. Irun'go ingurua aspaldian, Kristo aurretik, zan ezaguna izen auekin: Oiasson, Oearso, Oiarson (Oyartzun) Santa Elena ermita eta Arditurri'ko meatzak tartean direla.

Santa Elana (Xantalen)

Gaur egun ermita orretan aurkitu da erromatarren illerri bat, 75 urte Kristo aurrekoa eta 125 gerokoa. Berreun urtez erabilia. 1976'ean egin zituzten azterlanak: 106 ontzi agertu dira errautzez beteak; bata kristalezko botella aundi bat; beste guztiak lurrezkoak. Metal zatiak, urrezko belarritakoa, erromatar diruak, ezurrezko jostorrazak, kristal-pusketak. Beren garia auxe da: Vengo eunkadatik IV'garrenera, Kristo ondoren... Etxetxo baten gañean eraiki zuten kristau eliza, Santa Elena'ri eskeiñia. Santa Elena zan Constantino Enperadorearen ama.

Anditurri'ko Meatz-zuloak

Meatz-zulo auk ugariak dira, erromatarren garaikoak eta Oiartzun'en daude. Eun urte pasatxo izan dira injiniero batzuek an ibilli zirala aztarrikan. 46 meatz bide (galerías) eta 32 meatz zulo (pozos) zenbatu zituzten. Danetara 18 kilometro luze. Euren ustez 400 gizon bearko ziran 200 urtez zillarezko meatz aiek andik ateratzeko. 50 urte Kristo aurretik asi eta 150 Kristo ondoren bukatu ziran ango lanak. Ondoren, bere artan laga zituzten. Irun'go erria, Bidasoa bidea, Asturiaga eta El Juncal portuak, Santa Elena'ko illerria, inguru guztia zegoen zillarezko meatz aiengandik zintzilik. Labeak zidarra urtzeko, gurdi eta mando ugari meatz aiek mogitzeko, zidarra andik eramateko Inperioan zear, gudariak ez gutxi aberastasun aiek gordetzeko... IRUN Bidasoan, IRUN-A Naparroan, IRUN-A Araban: guztiak erromatar.

BURUZBIDE'REN ASKATASUNA

Askatasuna da gure egin-bideko edo bete-bearrezko ikaskizuna gaur egunean; eta ori: izakiaren eskubideak alan beartu egiten dabelako, berak daukazan bete bearrezko ardurakaz.

Orregaitik, berezko arduratik ezin alde-egin eta gutxiago saldu-ezina edo eman-ezina. Orrek esan gura dau: gu ez garan neurrian, orren neurrian zor izango gariela, ez bakarrik gure sendiari, bai izadi onek daukazan enda, edo izaera desberdin guztiari be.

Euskaldunak, nai ludi onek daukazan edozein enda edo izaeradunak, ezin dautse uko-egin berak daukazan ardurai orren arlotetasun edo salketaren neurrian entrabalotu (desequilibrar) egin leukelako izaeraren zabalkunde guztia; beren eskubideen egin-bearrak beste-batzuen eskuetan edo ardurapean itxiteagaitik. Eginkuzun ori: nor-beren borondateakin kateatutia bestearen menpean dalako.

¿Onen ardurarik-ezak nolako ondorioak ekarri leikez? Begitutea baino ez dogu bear Ludi oneri guztizko-ikusmenekin, eta zeatz gure Europa maite-oneri, bereala ulertzeko: sekula!, ez dala egongo bakerik, guztien arrazoia edo arrazoi guztia ez bada ezartzen, ludi onek daukazan jatorrizko legeakaz.

Au-da erakutsi gura dotena jarraipenean, gaia sei arlotan bananduz.

IZATASUNA: (Naturaleza)

Gure iztegiak esaten dabe "izatasunen" itza gaitik: latinezko NATURATIK datorrela; Grekoz, PHYSIS 'en itzulpen zeatza dala. Eta itz-bi auek, bakarrik esaten dabela: "jaiokeraren, sorburuaren edo azierakin zer-ikusia bakarrik daukadala. Leenengo esaugurean erakutsiz, bizi-en berezitasuna. Izatasunen itza izendatu ez-gero zentzu-zabalean, bakarrik esaten dau: "enda bakoitzaren izaera, jaiokeratik dagokio-lez dala".

Era berean esaten dausku, izatasun au, izaeraren egitamu-egillea dala bere muinean; eta orregaitik: "beren egikeraren ara' bein-betikoa"; "gure buru guztien gainean derri-gorrezko legea esarrita daukaguna, izadi osoak erperatuta daukalako" dala au.

Erreza da ulertzen ba: "ni, ez nazela moren ardurazkoa; bai, alderantsiz, nire ardurazkoa"; edo: "arduraren jatorrizko egokitasuna nire bizi-lekuan". Arau edo bearrezko lege-az joan-bear dauana, erri-artze (naturalización) gorputzari emondako (materializada) onetan.

Ondorio auek gaitik, izaeraren askotasuna, bai sorpeneko ugaritasunaren guzti-lez, orren arduragaitik mugatuta dago, edo arduraren egokitasuna, danok daroguna derigortuta.

IZATEA:

Izateagaitik, iztegiak edo lur-zabalean ontzat artutako itzaren esaerak esaten dauskue: bikaitasun orregaitik "ZERBAIT, GAUZA DALA".

Orregaitik dala oinarri eta leenengo osotasuna; bai daukazan beste obekuntza guztiak, izaeran artukizuna daukiela, olan edo beste era-batera jokatzeko. Beraz, ez denborarik ez etorkizunik ez dautse aurreratzen, bion erpeak izaeran sartu egiten dabelako (bizitzan), euren artean olan agertuaz. Ezer-ezetik guztiz urrunduz, bere goiengo egokitasuna, dan guztian agertzeagaitik.

Erreza da ulertzen orregaitik, gure gogai-bulko (ideal) arima-au, JAINKO'ak gizatasun biurtu zituanetik, gauza edo asmakari izatea lojikazko arrazoian; bai gogozko burutasunaren (conceptual) jakinean, euren izakera esaten dauskun ezkerro, izakiren itzulpenak bakarrik dirala.

ERRI-JAKINTZA:

Iztegiak esaten dausku, laterazko COLERE'tik (Landu) datorrela; beren esagurea asieratik, gizakumeen gaitasun-egokiak zaintzeko eta aurrerapena emoteko dirala, izaeraren egoeratik urrunago.

Erri-jakintzak asieratik, sartu egiten dauz erpeak izatasunean, eta beren egiazko amaiera lortzen dau, gizaren izatasunezko obekuntzan. Olan dala, erri-jakintzaren aurrerapeneko ekitaldi, artezkuntza eta neurriak, beragaitik dagoz baitipat mugatuta.

Norberaren (izaeraren) berezitasuna eta egiazkoa (objektivo) banatzen dauz. Leenengoak, gure egin-bearrezko obekuntzaren mana aipatzen dau; adibidez: izkuntza, gizarteko bizitza, zulentasuna, erlijioa, eta abar. Eta bigarrenak: egiazko jakintza (cultura objetiva o de cosas), trebetasuna eta teknikan obekuntzaren maila.

Ikusten dogu-lez, bizitz onetan erperatuta dagoen legetik, jakintza be ezin da alboratu, gure egitasunezko egokitasunaren ondorioa edo emaitza dalako; orregaitik ba: gizarte guztiari argitzen dautso, erabiltzen dauan gogamenaren (concepto) asmakitasuna (conceptividad), zeazkatzen edo erakusten bere egokitasunaren jardunaldia eginkizunezko arduran.

Gaur-egun, gure gizarteetan (esan leike konturatzen azi-garala), borondatezko ardurarik-ezagaitik (JAINKO'aren legeakaz batera joan bear direnak), ustezko edo guzurrezko jakintza bate-gaitik berba egin leike bakarrik, daukaguzan indar guztiak xautzailetasunezko (consumismo) bizi-bidetik ipinten doguzelako, eta onek daukan indar-biziaz beartu egiten gaitualako etxura onekin ez agertzeko.

BURUBIDEAK

IZAKERARI, jakintzak goratu eragiten dautso beste izaeraren aurrean, banaka nabaritzeko zeindasuna edo egokitasuna beren sorkundeen sorkuntza (concepción conceptual) guztian erakusten dauelako, bizi-guztia eta banaka beteten dauana, nortasunaren egokitasun-lez, ezinbesteko ekintazunetik IZAN gura dauana.

LEGEA:

Gizakiren gidari dana, derrigorrean ibili-bearra dauka, gauzatuta mundu onetan. Legeak, ez dau zaintzen betiko gure sortzailetasunaren berezkotasuna erriartze (naturalización) ontan bakarrik, beren muinean erperatuta egoteagaitik; bai adoztasuna, gure asmakeratasunen sorkuntzako (concepción conceptual) arrazoitasunean, gaiak daukazan arauakaz.

Orregaitik, izatasunean eta izatean, erperatuta edo edukita izatasunezko ludi onetan dagozela ikusi dogun lez: araudia. jakintza edo gure egoeran erri-jakintzan, betiko aurreraldi-ekintza onetan, "bide-izatea baino ez dirala". Onen ondorio edo eratorriagaitik ikusi-leike: LEGEA erperatuta, bat edo muin eginda dagon lekutik atara egin bear dogula, LEGEZ azalpentzeko eta elburutzeko, gure nai-gabeko gaitutasun onetan.

Orregaitik LEGEA da: izateen giza-barreneko arnas-artzeko erabakia, berezko burutapen mailla guztian; erriak edo erkidego-jakintsuari atzemaite dautsona orren eragin bidetik, curen arrazoitasunezko egikuntza lojikazko zeaztasunetik ados egon daiten BEREN IZATASUNEZKO LEGEAZ.

BIZITZAREN GOGAMENA ARDURAZKO GARBITASUNEAN

Garbitasuna, non agertzen da?

Garbitasunaren ezarpena adierazteko, mugatu edo ditu-geinke: "bizitzako jokaldi edo antzezketak egin bear doguzan antzoki edo ikustokiari".

Orduan, gure nai-gabeko erri-artzeagaitik (naturalización) gabiltz berbetan. Izatasunak edo bizitzako asmo guztiak JAINKOA'ren aztarna erooten dauan ezgero, BERE izakeran esan geinke edo esan-bearra daukagu izan bear dirala joandako denboretan, gaurkoan eta gero izango direnak, beti izan bear diralako garbiak eta argiak gure bizi-toki edo ludi-gai au beti bardina dalako. Gure nai ta naiezko ekintzak erakusteko tokia.

Onak esan gura dau, bizitzako ekintzari ies-egitea ezinezkoa dala, egikuntzak era-berezia oro-bat daukielako egikeran. Orregaitik, gure lojistikako arrazoiak billatu bear dituz (asmatu), nolako gai-gauzak bear ditun, gure bearrezko eginkizunak elburutzeko, ludi onen izatasunak eskatzen dauan lez. Or! agertzen da garbitasuna edo egiazko izaera bere indar guztiaz. Borondatea ba, izan bear da jokalaria

nagusien arteko bat, zentzumenaren gozo-gozo deituari norkerirako, utsaltasuna, andikeri edo otsaundien zirrikadak bastartuaz: garbitasuna, araztasun (pureza) garbi-zariko (limpia) neurri-onean, seni-zati, etorritzko, jaiotzetiko eta abar, agertu daiten. Zikinkeriak, guzurrak eta naastezkoak, ondasundunak naiz batzaile-zaleak nortasunen esku-bidetik lapurtu egiten dabenak, legezko bidera eroanda, danok eta bakotzak, bear doguzan ardurazko neurriak ari izanaz, gure eginkizunak legezkoak izan daitezkan. Au da arrazoia, egite-bakotzaren, uts edo garbi-lekutik asten garana, beti adiontasun (oportunidad) berdina eukinda. Nai-ta errakuntza asko eukinda-be, berriz aritik, uts edo garbitasunetik asteko, beti aukera berria. Or agertzen jaku JAINKOA borondate on guztiaz, Leenengo garbitasunetik edo uts-tokitik berriz asteko baimena emonaz! Izadia eta Europak, bide luzea ibili bear dabe, esaten daben ERRI-AGINTERAINO (democracia) eldu-arte; bakotxari berea eta beren arduragaz esan-gura dabelako itz-orrek; JAINKOA ipinitako eta bete-bearrezko legeari, nortasunaren elburu ori danok burutzeko, bizitz onetan nai-gabe jaioteagaitik.

Bestela, ¿zergaitik gaur egunean ainbesteko premina, ordaindu edo itzuli bearra izatasunari (naturaleza), akeneko urte gutxitan ainbat kalte egindako, neurri-bardinean garbitasuna bear dauanak irauan dagien? Adibidez: ozonoko zuloak, errekarren eta lur-azaleko zikintasunak dakazan kalteak eta eriotza urpeko arrain bizitzari, lur ganeko abere eta aizeetan dabiltsan egaztiari, eta zetan esanik-ez gizadiak naita nai-ez artu bear dauan arnas-aizeari, edozein lekuan botatako zikinak; naiz itxas-pean edo lur-pean, eurak dauken kutsapeneko arrisku edo gal-bideakaz, kontuan euki-barik, ostean egin bear diran erabilketak indar-kalte-garrizkoak ezeztatzeko. Bizitz onetan, ez dalako dirua jokatzen dana (legeagaitik aldatu dana), bizitzaren jarraitasuna baizik, garbitasunaren burutasuna edo asmoa (concepto) dalako apurtu doguna, JAINKOA'ren AGINDUA'ri ain erantzukien-ezagaitik?.

Guzti-onek esan gura dau, lurrari ataraten dautsagun mozkin guztia, neurrigabeko jan-bear itsutasunekin egiten dogula (diruan, gizartean neurri-bako inaurketak (estratificación), inoren ardurak gitxien artean jabetu eta abar). Ardurak tartekatu lotsatu barik, izatasunaren garbitasunak merezi dauan lotsakizuna erantsi eta indar-barritu daiten da au; bidamoduan besarkatu, bizitza on-artu dagien, izatasunaren edestian izango diranak datozen denboretan, BERE AGINDUEN GARBITASUNA zaindu dagien ardura guztiaz.

Gizon/emekumeen arremanetan berdin gertatzen da. Ba... GARBITASUNA edo BEREZKO ERRI-ARTZE izaten bada BEREN etorkizunetik ematen dauan LEGEA: "EZIN BESTE GAUZARIK EGIN"; eta len azalduta geratu dan lez: izatasuna, erri-jakintza, izatea, legea, izatasunezko bizitza onen nagusien elkartekoak izanda; ez direz ezartzen lojikazko etorkizunetik diran zatizko jakintzetan EGIN-BEARRA, ESKUBIDEA eta GIZA-LOTSA, izatearen geiengo berezitasunezkoak izanda? Orduan, arrazoisko

antolakuntza ukatzea ezinezkoa da, nai izatezko elkartetan, bai zatizko jakintzetan, leenengo asmakuntzatik jaiotakuak diralako, eta izatasunak daukan erperatutako legetik azten diralako. Ulertzeko erreza orduan: izatea, leenengoko asmoaren ondorengotik jaio edo azitea; orregaitik EITENDA eta EGINBEARRA dauka BEREN LEGEAREN adostasunekin, bizitzan erperatuta dauana. Beste aldera izan ez-gero, berarekin ez dauzelako ekarten, gerlak eta konpondu-bearrezko egoerak baino.

ERRI-ERABAGIA - ASKATASUNA edo JABETASUNA

ONDORIOA

Ikusi dogu, JAINKOAK gizon/emakumei BERE legeaz inguratu eta berarekin erperatuta, Munduko beti jaio-berri ontara, ordezkartzako arduradunak izateko bidaldu egin dozkula; alegindu gaitez, LEGEA neurri egokian zainduz, iraun dagiala gure arteko adostasuna baketsu.

Baina au ziurtatzeko, nun geiago ikusi geinke lege ori?

Len esan dogun lez, izadi edo muzndu guzti-onek erperatuta daukala legea, eta ez ustegabe, gizakiren bearrezko asterkuntzagaitik, egunero argiago agertzen jakun gauza bera da. Einstein'ek, beren ikerketatik argitu ebana, eta gaur ziurtasun aundiagoagaz jakiten doguna da; mundu guztian begitu ez-gero: "gai-mundu onetan, ez dagoala puntu bat be auzoko barik, eta guztiak berezotasun bardinekaz, bakotzak, beste guztien erdian esan-geunke kokatuta dagola. Galaxiarik ez dagoalako, besteak baino erdia-goan; orren izadi (cosmos) guztien erdia, leku guztietan agertzen dalako, eta beren mugak inundik be". Orrek, esan gura dau, izar guztiak daukiela indarra eta atdura bardinak, izadi-onek, neurri bardinean jarraitu dagian.

Ori, ludi onek daukan osotasunean; baina, joan gaitez barrurantz, eta ikerketaldi bardinean, gaiaren zatiketean (begitu noraino zatitu egin dogun) ikusten dogu, zeozer jakiteko: onen ebagiak erdi-banatzeko, bakarrik egin leikezela, gauza, izan edo nortasunezkoak diren artean, eta argira edo ikus-tokira agertuaz, ataltzu (particula) guztietan agertzen dana da, bakotzak bere indar berezia daukiela, leenengo izateko, eta bigarren, eurakaz osotu egiten daben bizi-gorputzani (berarekin egiten dauan lez) indartu eta bultz arduratu daiten JAINKOAK ipini gaitun agindua beteteko, bizitza osoak alai jarraitu dagian.

Gizon/emakumeen aberetasuna eta abere guztien gorputza ikertu ez gero, bardin gertatzen da. Eta orregaitik, emen agertzen dira gauza bi oso ez-bardinak. leenengoa: JAINKOAK eginda eta aginduak emonaz, bizitzaren izaera leun eta alai jarraitu egiten dau, bere il-bizi eginkizunezko aldatketatan, atzaltxoak (partículas), bizi ez-berdinak abere/arrain, zomorroak, eta ikusi ez direzan biziak, bai gauzak curen bizitzaz beartuta dagozelako, bir-jabetu egiten dabe osotasunera barriz bizitzeko prest egon daitezcan.

Eta bigarrena, gizon/emakumeen eginkizuna: jainkoak ez-garan lez, agertzen diran gauzakin baino (nai-ta nork-izan bizi-gauzari, ugaritu egin-azotzeko), ezin gara erabili, ordezkartzak beartu egiten dauzkun arduragaz.

Or ba, non daukaguzan benetako eta izugarrizko ikus-tokia, beretik ikasteteko eta ordearen ardurak beteteko.

JAINKOAK ipinten daukun aukera aundiarena ikasteko da: zelan igoten diran leenengo ataltxotik gauzara edo izatasunera ikas-aldi ori beteteko eta ondo amaitzeko ibili bear dogun bizi-au; eta ari-era orrek, nola beartuten gaitu izan gaitez maila berezitasunean beetik-gora, berzko izatasuna betearte: gizon/emakume, senide, auzune, lurraldeak eta etxe-nagusia edo ABERRIA; beti egiten diralako gauzak erpetik aunditasunera eta aberetasunean, txikitetasun egoeratik aundiak izatera. Baina, beste gauza-bat da, gizon/emakumeak egiten doguna, eta orregaitik dabil mundu au anka-z-gora.

ERRI-ERABAGIA - JABETASUNA - ASKATASUNA:

Danak eta banaka ordezkartzaren ardurazkoak garala, ziurtatzen dauana da: nortasunak daukan askatasunaren egarri-bereziak; bete eta lortu egiten diralako JAINKOAK-ren legeekin, adostasun guztiaz jokatzan dogunean. Joko onek, izatasunezko mundu onetan, izatea edo nortasunaren izaera argitu daiten daualako au. Orregaitik Euskaldunak eta EUSKADIK, badauka zer-bete BEREN LEGEAREN ordain bearrezko ardurakaz ERRIA argitu daiten.

Berez argitzen dana da, ikerketa onen ostetik: nor-bereren erabagia edo erri-erabagia (auto-determinación) izati edo izaeraren ordain-bearrezko berezi-bat dala, JAINKOAK ipini gaitulako orren arduratan jaiotzako guztiak. Eta argiago, ez dala iñoren fabore edo giza-maimenik.

Ori da, ondo-jaiotako Euskaldunak egin-bearra daukaguna beti, JAINKOAK-ren agindua bete-gura ba-dogu.

JABETASUNA ez da besterik, legeak ezkatzen dauan ordaina, arduradun danak, bete egitea baino.

Eta ASKATASUNA: esan doguzan gauza guztiak JAINKOAREN legean betetan badoguz, eurak ematen daben poza.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1999'an ORRILLA'ko 8'an

ARALAR'KO MIKEL DEUNAREN KONDAIRA¹

Olertizko edergailluz benetan aberatsa da Aralar'ko Deunmikel Goiaingeruaren kondaira.

Nik, emen, nere gurasoen ezpainenetik jaso neban lez emango dot. Aralar'pean jaiok eta bertan azi-ta-eziak izan bait ziran biak: Aita, Joseprantxiko, Betelu'n. Ama, Benitte, Betelu'tik kilometro batera dagoan Arantz Aran'eko Arribe'n.

Kondaira orrek aurkezpen asko dauz. Ezberdiñak, naiz danak, beren gunean, berdiñak izan. Ona emen, nere gurasoengandik ikasi nebanaren atalak:

-Mauritar musulmanak Euskalerra Zarreko muga.

-Teodosio Goñi'ko Zalduna Iruña'ra doa Nafarroa'ko errege egiña izateko.

-Bidean, lekaide jantziz azalduta, au dasaio deabruak: "Teodosio: Emaztea ta bere maitale lizuna ire ogean etziñik dauzkak izoraketan".

-Teodosio'k itzuli, bere gelara ogean sartu, eta, illunbetan, ogean zeuden biak iltzen ditu, aitzoz, karraixi ikaragarri bat jaurtiz.

-Karraixia entzunik, goiko bizitzatik dator emaztea, zurubia-beera.

Teodosio'k: Zu... bizirik? Nortzuk ziran ba gure ogean zeudenak?

Emazteak: Zure gurasoak. Etxeko ogerik ederrena gurea dalako, bart illunabarrean oge ori zure gurasoei eskaiñi bait neutsen.

Dionisio Erroma'ra doa barkapenaren billa:

Dionisio'k: -Neure guraso biak il dodaz ogean.

Aitasantuak: -Penitentziz, kate au eroango dok soiñean, bera, berez, austen dan arte; eta basoetako bakartasunean biziko aiz.

Teodosio Erroma'ra joan zanez gero, Aralar'ko leize-zuloan erensuge aundi bat bizi da.

Jaiegunero, inguruko errietatik neska gazte bat eroan bear yako jaki, bere otordurako.

Aralar'era doa Teodosio erensuge ura ezpatatz iltzeko asmoz.

(Zaldun zalarik berekin bait zekarren Teodosio'k ezpatata).

Aralar'ko leize-zuloaren aurrean.

Teodosio'k: -Non aiz, erensuge?

Erensugea: -Emen nauk!

Teodosio erensuge aren izugarritasuna ikustean, Mikel Goiaingeruari oiuka laguntz-eske:

Zeruko alkarrizketa:

Jainkoak: -Mikel: deitzen aue mundutik. Joan bearke dot.

Mikel 'ek: -Nik, ordea, Jauna, ez neuke joan nai zu gabe.

Jainkoak: -Eraman nazak ba.

Mikel'ek: -Pozik, Jauna, baiñan, arren, nere buruaren gaiñean. (Orregaitik omen daroa Aralar'ko Mikel'en irudiak gurutze bat buruaren gaiñean).

Mikel, Euskalerraren biotza dan Aralar mendian.

Erensugea, inpernura igesi.

Teodosio'ren katea, bi puska egiñik, Teodosio'ren gerritik lurrera.

Aralar-inguruko neskatxak, lasai, eta pozik.

Ta, arrezkero, Euskalerra guzia Mikel Goiaingeruagana esker onez beterik.

MISTIKAREN ESPARRUAN MIKEL GOIINGERUA EUSKO-MISTIKAREN ERAGILLE TA EREDUA

(Aspaldi Teologizko gaiak erabiltzeaz azturik-edo gagozala-ta, Jakintza orren barrutiko txoko bat jorratzea gogoratu yat. Ni ere teologilaria bait naiz, eta, -bedi arrokerizko ttantta txiki batez esana- ez ain txarra, Teologiko "Pontificia Facultas" en lortutako goi-aipuaren neurria).

(Gaurko idazlan au Euskerazaintzak Aralar'en erattuta-ko erromesketa baterako gertutu neban itzalditxoaren zabalpena izango da).

Aralar'ko kondairaren aurkezpen au, ez litzake bearrezkoa Nafarroa'n edo Gipuzkoa'n. Baiñan "ZER" Bizkai'n Bizkaieraz Bizkaitarrentzat argitarzen dalako, eta Bizkai Aralar'tik urrutixamar aurkitzen dalako, badaiteke, gai orri-buruko nere urrengo idazlana errezago aditzeko, gure irakurle bat edo bati, egokia gertatzea.

"KONDAIRA", euskerak aspalditik sarturik daukan itza da: Laramendi'k sortu eban, "historia" euskeraz adierazteko. Baiñan "kondaira", "historia" ez baiña "leyenda" da: "lo que se cuenta". Orregaitik, nik, "Historia" adierazteko, Arana Goiri'tar Sabin maitagarriaren bidetik ibilliz EDESTIA esan eta idatzi oi dut beti, itz berri ori benetan bait da polita. "Kondaira", beti, "leyenda" euskeraz esateko erabiltzen dut.

MIKEL, MIKEL, MIKEL GUREA

Geienbat, Unibersitateko Maixu ospetsuentzat ez baiña, Bizkai'ko erri-jende xaloarentzat idazten dogu guk gure Aldizkari maitagarri ontan. Orregaitik, bearrezkoa izango dot emen erabilliko dodazen itz biren azalpentxo bat egitea.

Seguruaski sarritan entzunak dozuzan "MISTIKA" eta "ASZETIKA" dodaz bi itz oiek.

Orra ba: Danok gagoz santutasunera beartuak. Eta, ASZETIKA, gizakumeak -Jainkoaren laguntzarekin, jakiña- santutasunerako bidean egin daiken guztian esaten yako. MISTIKA, berriz, bide ortan, gizakumeon, aalmenetik aruntz, Jainkoak gure-baitan egiten daun guztiari.

Milla aldiz entzunak gara, euskalduna, berez, egintzara iraulitako gizakumea omen dalako, oso yayoa dala ASZETIKARAKO, ez, ordea, ain trebea, MISTIKARAKO.

Alare, nik, Euskaldunak badaula -agertu nai neuke-, MISTIKARAKO, Jainkoagandik etorri yakon ukimen bereizi bat, eta ukimen ori Mikel Goiaingeruaren bitartez etorri yakola.

ENDA BAKOITZAK BERE DOAIA

Ori, egia da erlijiozko sikologiaren aldetik ere. Orrela, Frantzi'ko jendeek Jainkoagan geien miresten dabena, Jainkoaren ONTASUNA da. Jainkoa aipatzen daben bakoitzean ez dabe Aren ontasuna azturik itziko:

Alderantziz, "LE BON DIEU" esango dautsue beti.

Ontasun ortan ipintzen dabe beren itxaropena: "ONA da-ta, barkatuko dausku Jainkoak gure txarkeria".

Españiarrek, Jainkoaren ERRUKIA dabe batez ere miresten. Ortik Yosuren Biotz Errukitsuari izan dautsoen eraspina. "Jaikoak ERRUKI gaitzala", "perdónenos Dios" esan oi dabe larrialde gaitzetan.

Guk, ez, Euskaldunak -atzerrietako kulturaz unkiturik ez dagoan euskaldunak- Jainkoaren "ontasuna" eta "errekitasuna" baiño geiago Aren AUNDITASUNA, Aren neurrik gabeko aunditasuna dau bere barne-bizitz-kristauren eragillea.

Baita itxaropenaren oiñarria ere: *"Aundia da Jainkoata, barkatuko gaitu"*.

Au da, euskaldunen kontzientzipean, uste eder orren igitaria (motorra): *"Osoki aundia dalarik, daun guztia mugarike bait dau Jainkoak aundia, neurrik da baitare aundia gudanako maitasuna, eta maitasun orren ondorioa dan, gure txarkeri oro barkatzeko errukimena"*.

ERRIA IZAN DOT IRAKASLE

Erri-mixio, gogo-jardun, aitortegi, eta amimen zuzedaketa eskerrak, aspalditik oarturik nozue, gure erriak, Jainkoaren AUNDITASUN ori, bere ariketaren ondorioz EZAGUTU baiño geiago (ori aszetika bait litzake) mira-

rizko barru-eragin baten bidez bere animaren barruan, USMATU, sumatu, nabaritu, egiten daula. A! baiñan...! Ori, usmaketa ori, Jainko-Aunditasuna usmatze, sumatze, sentitze ori, eta -animaren begiz- ia-ia Aunditasun ori ikusi ere egiteko gaitasun ori..., ori guztia..., MISTIKA da!

ANIMA-ARTZAIEN ITZAK

Bein, Mendekoste-egunez Aralar'en mintzatu nintzan, gure erriak Jainkoaren Aunditasunaz nekerik gabe oartzeko daun gaitasun ortaz On Iñoxentzio Aralar'ko apaizarekin, eta bera ere ortaz ederki jabeturik zegoala erantzun eustan.

Egia: gure jende xumearen sinismen guztiaren gunea, Jainkoaren Aunditasunaren misterioa da: Gure erriak animako begiz ikusi bezela egiten daun Jainkozko Aunditasunaren misterioa: Sentitu -eta baita gozatu ere- egiten dau ba Misterio orren Aunditasuna.

Jainkoaren Aunditasunaz, itzegiten omen eutsen Iñazio Loiolatarrak Erroma'n bere lorategiko liliei. Jainkoaren Aunditasunaz mintzatzen omen zan gaeuz Indietan izarrekin Frantzisko Xabiertarra.

"Ad Maiorem Dei Gloriam", "Jainkoaren Aunditasuna gorestea" artu zuen Loiola'koak bere bizitzarako elburu bakarra. Euskalduna bait zan!

Jansenikeriak, Olanda'ko Jansenio ez baiña odolez eta elez euskalduna zan apaiz bat izan eban apostolurik bizkorrena, eta egiazko zuzendaria ta, jansenikeriaren moralitate gogorraren eratzaillea: Saint Cyran'go Abata.

Orregaitik, Jansenikeriaren muiña Jainkoaren AUNDITASUNAREN Agurketa da. Eta bere moralitatearen alburua: Aunditasun orreganako eraspina: geiegizko eraspina zoroa.

Ala, Saint Cyran'go Abatak, urtean bein bakarrik eman oi zuan meza. Ori, zergaitik? Jainkoaren Aunditasunaren pentsamentupean txunditurik bizi zalako!

Loiola'ko giputz arek bezala, "a MAIOREM dei gloriam izan eban elburu Laburditar onek ere. Ura bezala, au ere Euskalduna izaki!

Ezagutu dodaz nik, illunabarrero sutondoan beren sendi osoarekin arrosarioa esaten eben etxejoan zintzoak jaunartzera urtean bein bakarrik ausartzen ziranak. Eta ori ere, nolako gertuketaz gero!

"-Gizona, zuk gutxienez igandero jaunartu bear zeunke".

"-Igandero? Ez, Jauna, ez! Guk ez dogu orrelakorik merezi. Ori, Jauna, gu baiño kristau zintzoagoentzat izango da".

Jansenikeriaren ondarra? Bai noski. Baiñan aurretikoa da Jainkoaren Aunditasuna biziki nabaritzeko euskaldunek daben erretasuna! Orregaitik ainzuzen zabaldu zan emen ain errez eta ain sakon gaur zorionez asid ezabaturik dagoan jansenikeria.

KONDAIRA

Estukeri zimel orren ondorean, Jainkoaren Aunditasuna poz-iturri da berriro Euskalerrian.

Araba'n dago Aramaiona. Ba, "Aramaiona'ko gizon-emakumeek Jainkoaren Aunditasunari dioten eraspen zerutarrak oarturik nago ni ere", -esan daust gaur bertan bera ere aramaionatarra dan Gazteiz'ko Katedraleko apaiz organu-jotzailleak -"Eriotzako orduan mundu ontakoa ez dan alaitasun bat ematen dautso gure jendeari Jainkoaren Aunditasunean pentsatzeak".

JAINKO TA EUSKALERRIAREN ARTEKOA... NOR?

Jainkoa bere doaien nagusi da. Nai daun bezala ematen dauz bereak dauzan doai guzti oiek. Geienetan ordea giza-kumearen meresimendu bati erantzuenez, eta sarritan, Bera ta gizakumeen bitarteko norbaiten bidez.

Bitarteko orren billa, ¿"nor ote da Euskalerrriak geien maite izan daun Santua"? Galdetu neutson nere buruarri.

Nor? Mikel Goiaingerua, ezpairik gabe. Zenbat eliz eta zenbat baseliz ez dau Mikel Goiaingeruak Euskalerrrian? Bai al da emen eliz bat, (oraingo santurik-gabeko eliz itun otz auek izan ezik) Mikel Donearen aldare bat -edo beintzat iruditxo bat- ez dauanik?

BITARTEKOTASUN ZARRA

Noizkoa ote da Euskalerrriak Mikel Deunari dautson maitasun ori? Nork jakin! Nere ustez oso zaarra.

Zaarren agertzen daun kondairak, Arabitarren etorrerakoa dala diñosku. Orduan agertu omen zan ba Mikel Donea Aralar Mendian Artxueta'peko leize-zuloaren aurrean, Teodosio Goñi'ko zaldunaren deiari erantzunez.

Nik askoz zarragoa izan daitekela esango neuke: Jentillen aroan, mendi ortan, eta ainzuzen leize-zulo orren aurrean, euskaldunek sasijainkoaren bat gurtzen ebela, eta kristautu ziranean asi zirala aren ordeztan antxe bertan Mikel Goiaingerua govesten.

Ez dakigu, ezta, noiztik uste izan daun Euskalerrriak Aingeru bat dela bere zaindaria. Ez, gaiñera, edozein Aingeru bat, ez; Mikel Donea baizik, Aingeru guztien buruzagia den Mikel Goiaingerua ber-bera.

Era berean ez dakigu noiztik dagoan ziur Mikel Goiaingeruaren zaindaritza ortaz gure Euskalerrri zar au.

LARRUKI BATEN MINTZOA

Gure edestiko dokumenturik zarrena VIII mendearen erdi-erdikoa da: 759'ko Jorraillaren 24'koa. Larruki orrek lekaime edo monja batzuk lekaimetxe edo monasterio berri bat nola sortu eben jakinerauzten dausku.

Lekaimetxe ori zagoan tokia -Errioxa'ren sarkaldeko mugan- gaur ez da Euskalerrria. Baña orduan bai, eta Eus-

kaldunak dira larruki ortan agertzen yakuzan lekaime-ize-nik geienak ere.

Baiña ez da antziñako gure aizpa aien euskalduntasuna, nik emen oroiterazi nai dodana, Mikeldeunaren maitale ba'zara asko poztuko zaitun beste zerbait baizik:

Orra ba: gure lekaime maitagarri aiek bi santu bakarrik aipatzen dabez beren zaindari lez. Biak euskaldunak:

Bietako bat, euskalduna, bai odolez eta bai izkeraz ere: Armenti'ko Prudentzio donea. Arabarra. Ez arritzeko gauza, Araba'rena bait zan aspaldiko garai artan Naxera'tik sarkalderuntz Errioxa guzia.

Euskalduna baitare beste zaindaria. Euskalduna... ez, noski.

Odolez, zaindari orrek odolik ez daulako. Euskalduna, ordea, maitasunez. Bai gure beraganako maitasunaz... eta baita bere gurureganako maitetasunaz ere.

Errez asmatu daikezu, gure beraganako eta bere gureganako maitasun bikoitz orren ondorioz, euskalduna dala diodan bigarren zaindari ori nor izan daitekean: Mikel Goiaingerua.

Larrukian ikusi daikegunez, bai omen ebezan lekaime aiek bi zaindari oien erlikiak!

Zer ote zan lekaime zintzo aiek "almi Dei Arcangeli Micaeli" (sic) edo "Jainkoaren Goiaingeru Mikel esku-zabalaren" erlikitzat zeukatena?

Ez noski Goiaingeru aren egaletako lumatxo bat, beren-buruak-jakintsu-usteko kankaillu batzuek irriz esan oi duten bezala.

Lekaime aiek "Jainkoari-begira-egon-zale" ziran. (Esan dezadan, teologitik jasota izkuntza guztiek onarturik daukaten itza erabilliz) lekaime aiek "kontenplatibak zirala", eta kontenplatibak izanik ez zebiltzela oker beren mistikabizirako Mikel Donea eredutzat artu ebenean.

Beste aingeru guztien artean, era berezian bait da "kontenplalaria" Mikel Goiaingerua: "Beti Jainkoaren Aurrean Gauden Zazpietako Bat", beste gaiiaingeru batek, Rafael Doneak, bere buruaren aurkezpena egiteko erabilli eban izkeraz.

MIKEL GOIANGERUA, ESKER ONEKO AINGERUA

Leenago ere bai seguruaski, bañan arrezkero bai beintzat, Mikel Goiaingeruaren zaintzapean bizi izen da Euskalerrria, eta Mikel Goiaingerua izen da aszetikarako ez eze mistikarako erabilli daun eredu.

Aingeruek, guk aiek baiña aiek gu milla aldiz geiago maite gaituen ezker, ¿ez ote zaigu zillegi pentsatzea Mikel Goiaingerua izan dala, Euskalerrriak izan dautson eraspenaz unkiturik, Jaikoagandik mistikazko doai xamur ori lortu dautsona?

Dirudianez, era berean joan bait dira sendotzen Euskalerrria-baitan Mikel'enganako zaletasuna ea Jainkoaren Aunditasunaren sentimen pozgarria.

**JAINKOAREN AUNDITASUNA ETA
EUSKALERRIKO MISTIKA**

Ea asmatzen dodan esan gura neukena era ulert'errezean agertzen. Ez bait da erreza mistikaren teologiari-buruzko gai auetaz aisa mintzatzea. Naiz artean ni mutiko bat izan, gogoratzen dot nola nere amonak, Benitte nere ama zanaren ama Joxepa Igerabide Goikoetxea arazitarrak, Mikel Donea aipatzerakoan, beti izen orren esannaia ere nola aipatzen eban: "San Miel, ¿Nor Jainkoa Bezala?"

"Nor Jainkoa bezala" orrek Jainkoaren Aunditasuna adierazten dau zuzenean. Eta Mikel'en izenak eskeintzen daukun Jainkoaren Aunditasunerako zubi ori, milla ta milla aldiz aurkeztu dautse pulpituetatik Euskal Erri kristauari bere Apaiz Jaun onuragarriek.

Eta beste orrenbeste aldiz entzun dabe ori bera -nik nere amona Joxepa'gandik bezala- Euskalerriko mutikoez eta neskatoek negu gorriko illunabarretan sukaldeetako bero goxoan aitonaren edo amonaren ezpaiñetatik, auek Ara berri ematerakoan: "Nor Jainkoa bezala".

Era ortan ikasi neban nik ere teologizko nere lenen ikasgaia: "iñor ez dala Jainkoa bezain aundirik".

Batean asi ta batean azi yakuzan gauzak dira, beraz, Euskalerraren, kristauketa, Mikel Deunaganako Eraspena, Mikel Donearen izenak esan nai daunaren ezaguera, eta, Jainkoaren Aunditasuna sentitzeko -eta gozatzeko- euskaldunen erreztasun mistikioia.

Jainkoak bere zeruan bitza, misterio ortaz eta misterio orrek Mikel Goiaingeruarekin daun lokarriaz ain ederki oartu ziren VIII mendeko lekaime kontenplatzaille zintzo aiek.

¿Zer ote zan, ordea, ain maitetsu gorde nai eben Mikel Deunaren erlikia?

Ona ba: Esan dugu kondairak Mikel Deunaren agerpena VIII mendean ipintzen digula.

Ia kondaira danek bezala, onek ere izango dau ziurki egiazko gunea. Gune ori zer izan daitekean? Nere ustez, gutxienez onako au:

Mende artan, larri aurkitzen zen penitentzigille batek Mikel Deunari egindako eskariaren ondorioz, Aralar'en zerbait arrigarri gertatu zala.

Ainzuzen orduantxe, -eundaka urtez gure aurka borrokan ibillitako Bisigoten atzetik- gure mugetaraiño iritxiak genituan berri batzuk: Arabitarrak. Ez lengo aiek baiño biguiñagoak.

Orrelako une gogorretan arin zabaltzen dira itxaropena dakarkiten albiste guztiak. Arritzekoa al da Aralar'en

gertatutakoaren berri Euskalerraren mugarik arriskutsuean zeuden lekaime aienganaraiño azkar eta arin eldu izatea?

Egoera larri artan, Mikel Goiaingeruak -Aralar'era SALBATZAILLE LEZ etorri zan ezker- sagaraturik utzi eban Aralar'ko leize-zuloaren inguru guzia.

Arrezkero, euskaldunentzat, inguru artako edozein gauza Mikel Goiaingeru ber-beraren gauza bezalako zerbait zan: Mikel Goiaingeruaren ERLIKIA.

Ez zan gaiñera edozein Mikel'ek erensugearen atzaparetatik gaizkatu ebana: Mauritarren aurka Euskalerra babesteko Euskaldunen errege egiña izatera zijoan Goñi'ko Teodosio, Euskalerra guzian ondo ezaguna zan zalduna! Teodosio ez zan errege izatera iritxi. Baiñan ain era miresgarrian salbaturik gertatzea, ¿ez ote zan Euskalerraren goi-erregetza Mikel berak artzen ebalako adigarri nabaria?

Aralar'ko aren antzeko erensuge bildurgarri bat zeukaten gure Lekaime maitagarri aiek alboan: Mauritar musulmanen gudarozte erio-zabaltzaille ikaragarria.

¿Arritzekoa ote da alako giro arriskutsu batean lekaime aiek Aralar'ko leize-zulo artatik arrikokkor bat -edo orrelako beste zerbait- beren Iekaimetxe berriraiño ekarri nai izatea, beren biziak, beren Iekaimetxe ura eta beren Euskalerraren egoaldeko muga guzia Mikel Goiaingeruaren babespean geratu eitezana?

Orregaitik aipatu ziguten fede tinkoz, itxaropen ziurrez eta maitasun aundiz, gure larrukirik zaarrenaren asieran, Doneprudentzi Euskaldunaren erlikiaz batera, Donemikel "Euskaldunaren" erlikia.

AGUR MIKEL, MIKEL GUREA!

Ez dakigu ziur, nolakoa izan zan Mikel Goiaingeruaren agerpena. Baiñan zana zala an egin ebana, ondotxo sartu gure Erri Zaar oni, bere oroimenean.

Eta, -au guretzat garrantzitsuena- an, Aralar'ko leizezuloaren aurrean egin ebanetik bidea artuz ari izan yaku Mikel Donea gure Erri Zaar onen anima-baitan, gure Erri ZAAR onek ain berezkoa daun mistikarako joera biguiña ereiten, erneerazten, sendotzen, zaintzen eta gordetzen.

Ori dau gure Erri Zaarrak Mikel'engandiko doairik ederrera: Mistikarako gai izan dadin, aingeruzko esku legunez barne-muiñetan errotu dautson gaitasuna.

Eskerrak zuri Mikel Jainko "kontenplatzaille" zoriontsua, Aingeruen Buruzagi altsua, eta gure Euskalerra onen Zaindari zintzoa.

LATEGITAR BIXENTE

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

URRATSIK AUNDIENA



Itxas ertzean aurkitzen naz. Goizeko itxas-aizepean itxasontzi batek bere itxas-oialak zabaltzen dauz eta or doa, zabalera. Indar eta edertasun orren irudia begira nago itxas-ontzia tantatxu bat biurtu arte, zerua ta itxasoa bat egiten diran zerumugan. Orduan nire ondoan dagoan batek diño: "begira itsutu egin da". Baiña itsutu neure begimenerako bakarrik. Berak, bere bideari jarraitzen dautso bidea egiten, azken tokira bere zamea eroaten. Bakarrik itxas-ontzi oialdun eder ori neure begietarako txikitu da ta zeru-mugan eskutatu ta neure ondoan batek deadar egin dauenean esaten "begira, itsutu egin da" beste begi batzuk ikusten dabe ta euren abotsekaz, poztasun aundienaz, diño: "Ba dator! Ba dator! Eriotza ori da.

Gogamen au izen bako batena da ta oialezko itxas-ontziaren irudia artuta, mende batekoa gitxienez. Gorputzeko bizitza arimarenara aldatutearen irudi zeatz eta politena da; ikusten dogun mundutik ikus-eziñara joatea. Zer deritxazue?

Otoitza

Guk emen itzita gagozanok, erregututen zaitugu maite dogunen alde. Artu egizuz Zeure maitasunaren maitasun aundienean.

Eurak urrin ez dirala joan gogoratzeko Zeure indarra bear dogu, geu guztiok Zeugan gagozelako joan diranak be ur dagozela, geure artean, Zeuk zabaldu dozun maitasunaz lotuta.

Naigabeen utzi gaituzu ta zabaldu geure biotza bizitzako Argia ta amaibakoren daupadak aditu dagiguzan. Eta Jainko bizi orren arnasa artzean, geure barru-barrua eskutauta dagoana, poztasunez beteta aurkitu gaitez.

Maite doguzan gauza guzti orreik Zeure aurpegia dauke. Maite doguzan guzti orreik Zeure eskuetan izten doguz Zeure biotzak zaindu ta gordeten dauzela ziurtasunean gagozelako. Geure Jainko ori zaindu egizuz eta zaindu gagizuz.

OLANTXE

JAZORIKOA - ETE? (Jazorikoa lez esan eben)

Bilbao zarreko (Uri zarreko) kale baten laugarren etxe-oiñan, emakume bat il egin zan. Antxe egondako Abade Jaunak alde egin eban eleizkizunak gertatzeko.

Baiña zurubitik bera joiala, irugarreneko etxe-oiñan bizi izan zan andra bat bidera urten jakon, beragaz itz egin gura ebala esanaz. Etxe artan Abadea sartu zan eta euren artean, gitxi gora-bera, alkar izketa au euki eben:

- Mezede bat eskatu bear dautsat berorri
- Esan ba (abadeak)
- Laugarren pizuko andrea il-zorian dagola nago...

- Bai, ointxe il da ta andik nator

- Ba... ori dala-ta, mezedez joan bedi jaun alargunarengana nire partez... "errekadua" egiteko.

- Baiña andrea, gorpua oindiño etxean, zelan joango naia-ko une onetan!

- Bai Jauna, mezedez egistazu "errekadu" ori, bostgarreneko andreak be konturatu naz begi onakaz begiratzen dauela gizon alargun ori ta erdi maltzurra dalako ba leiteke niri aurrea artzea...

Ainbat ekin eta ekin eutsolako, or doa zurubian gora geure Abade gixajoa jakin barik zer eta zelan itz egin "errekadu" ori ondo egiteko.

Eldu zan laugarrenera ta etxeko jaunari esan eutson beragaz itz egin bear ebala.

- Zer dakar ba Abade Jaunak?- esan eutson etxeokoa.

- Ara neuk ez dot gura izan etorri, baiña 3'gn. etxe-oiñeko andreak esan daust bere partez "errekadua" egiteko ta orregaitik emen naukazu.

- Ai Jauna, ordu txarrean zatozkidaz!

- Ori bera esan dautsat neuk be, baiña ainbeste erregutu egin daustalako etorri naitzu...

- Ez, ez da orregaitik...

- Zer ba?

- Ara, ointxe bertan notin bat urten da emetik 5'gko. emakumearen alde "errekadua" egiten... eta BAIETZA emon dautsat.

Ez dakigu Abade gixajoaren aurpegiak zenbat margo artu ebazan. Eta zurubitik bera zelan jatzi eban be ez; saltoka ala bolatiñak egiten...

Dakiguna auxe da: etxe ortan bizi zan gizon bat sartu zanean Abadea zurbilduta aurkitu ebala atadian eta bere kolkorako onelan iñoala:

- Au bai txarto egiña mundu au! Batzuk ezebez... eta beste batzuk daukena galdu orduko "errepuestoko" bi aurkitzen dabezela.

EGILLEOR'tar JON

BERTSO AFARIA

Joan dan zezeilaren 19an Txoberne tabernan izan genduan bertso afarian ainbat bertso eta kopla abestu genduzan giro alai eta aproposalan. Orren ezaugarri or daukazuez orduko bertso batzuk.

Bertsorik gabe ez da asetzen bertso zalearen arrik, amaikak eta berrogeita amabost ez dago esan bearrik. Nabari dago amaikakoak gaurkoan ba du indarrik jakin nai nuke aski al diran amaika bertso bakarrik.

(Lizaso)

Afari eske asiak gera geure petxua puztuta, ia goseak etorri gera eta ori ezin ezkuta. Baina laguna lasaitu zaite berandutzerik ez du ta, gaur joango gera tripa beteta eta burua ustuta.

(Mendiluze)

-Getariako (Mendi luze) eta Bakioko (Lizaso) txakolin egile bi alkarrez berbetan:

Zuk Bakio aldean dabilkizun lana onena ura dela batzuen esana. Ori bai eskatzeko daukazu afana baina zerbaitegatik daukagu guk fama.

Ipini nai zenduke zu gure parian ta sartu bear dezu orain komerian. Txakolinik onena dago Getarian emendik eramango zenuten agian.

UDAL AUTESKUNDEAK

Aurtongo bagilaren 13an izango doguz Udal Auteskundeak barrian. Datozan lau urteotako udal ordezkariak (zinegotziak eta alkatea) aukeratu aal izango doguz, bada. Aurrekoetan lez, aurton be EAJ, EA eta EH (HB) alderdi euskaldunek euron autagaiak aurkeztuko deuskuez. Guzurtoki politikoetan entzuten diran zurrumurruak diralaeta, baina, baleiteke aurton alderdi espainoleren batek, leenengoz gure errian, kanpotik ekarrirako autagaiak aurkeztea. Ziur gagoz, ostera, Bakioko erritarrak bertoko alderdi euskaldunen alde agertuko dirana.

INIAKI MARTIARTU

Arrotasuna dezu zuk ezin gordea guk umildadetikan jokatu ordea. Getaritik Bakiora ba dago aldea zuena ona degu gurea ohea.

Txakolina egiten makina bat urte gainera ba daukagu naikoa bertute. Txuri, gorri ta beltza aukera dezente zuek txuria bakarrik egiten dezute.

UNAI BEITIA

ZUGATZ EGUNA 1999

Aurtongo zezeilaren 19an ospatu zan ZUGATZ EGUNA gure errian Udalak eraturta. Egun ori Larrondoko askaldegian emoteko, urtero lez, ainbat eta ainbat ume, eskolako irakasle eta udaletzeko beargin ara joateko batu ziran, goizeko 9.30etan, udaletxe aurreko enparantzan. Aro txarra egonda be, 125 zugatz landatu ebezan: aretxak, leizarrak, kereixondoak eta urkiak. Zugatzak landatu ez eze, zugatzon inguruan jakingarriak azaldu eutseezan umeei udaleko arduradunek. Umeek Bakioko inguruak eta ingurugiroa jagoteko makina bat gauza poz-pezik entzun eben egun atan.

INIAKI MARTIARTU


EMENDIK GITXIRA ADMINISTRATU EUSKALDUNEN ERROLDA ABIAN

Izenburuan agertzen dan lez, udaleko euskera zerbitzuak aztertzen diardu administratu euskaldunen errolda martxan ipinteko asmoa. Izan be, administrazinoa euskalduntzeko plangintzak onartzeagaz batera, adniinistratuei tramiteak euskera utsean jasoteko aukera be emoten jake.

Ori egiteko arrazoiak bi izaten dira: batetik, tramitazinoak, agiriak eta era guztietako artuemonak euskera utsean gura daben erritarrei zerbitzu ohea eskaintzea, eta, bestetik, administrazinoko jarduna bizkorrago euskalduntzeko oinarriak ipintea. Ganera, auxe da udal bearginei alferrikako bearra emoten deutson elebitasuna saiesteko modu bakarra.

Orrenbestez, apirilaren amaieran martxan ipiniko da artuemonak euskalduntzeko egitasmo barri au. Orretarako, aprobetxatuko da erriko alkarreei Bakioko gizarte bizitzan euskeraren erabilera areagotzeko jendaurrean aurkeztu bearreko ekitaldia.


ZIDURI



EIIFSICEKKZZLEEK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO